

DATORRENA

Gosea pizten Kanakyn

MAITE UBIRIA BEAMOUNT > 3

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Kirruli akabatu nahian hil
zuten Cabacas RAMON SOLA > 11

2018ko urriaren 20a | XII. urtea • 591. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



UNIBERTSITATEAK ATERPEA EMAN NAHI DIO EUSKAL DANTZARI

> 12 Jon URBE | FOKU

**Yezidiak, beren lurraldean
errefuxiatuta bizirauten** 04

**Urriaren 1eko hautetsontziak,
askatasunerako artea** 07

**Euskal dantza, unibertsitatera
babes bila** 12

**Derlan motorrak, Zarauzko
historia ia ezezaguna** 17


**E.lkarrizketa: Juan Carlos Arboleya,
elikagaien zientzialaria** 22

**Iritsi dira Rojavara Euskal Herritik
bidalitako musika tresnak** 24

Sarean 26

In fraganti: Eduardo Alsasua 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Maite Ubiria Beamont:** Gosea
pizten Kanakyn

10 **Oier Gorosabel:** Haurren
halterofilia?

11 **Ramon Sola:** Kirruli akabatu
nahian hil zuten Cabacas

15 **Nekane Zinkunegi**
Barandiaran: Inguruaren ajeak

15 **Joxean Agirre:** Irati txikiak

16 **Unai Gaztelumendi**

20 **Gorka Etxebarria Dueñas:**
«Mannequin challenge»

21 **Amaia Nausia Pimoulier:**
Dogma

30 **Ana Elozegi Serna:** Barruko
korapiloak



{ datorrena } Maite Ubiria Beaumont

Gosea pizten Kanakyn

El *apetito viene comiendo* (“jateko gogoa janez dator”). Horrela zioen Juan Jose Ibarretzek 2016ko ekainaren 5ean zabalduriko txioak. Euskal Herriko hainbat herri-tan antolaturiko kontsulten kariatara gorazarre mezua zabaldu zuen orduan Twitter bidez. Sare sozialean berehalako erantzuna eman zion Arnaldo Otegi. Gosea pizteko gogotsu bera ere, lan amankomuna egiteko gonbidapena luzatu zion lehendakariari. Mezu trukaketa etorri zait burura laster bere etorkizuna erabakitzeko erreferenduma eginen duen kanaky herria atzera kontu betean sartuta dagoen honetan. Azaroak 4an iraganen den kontsultara heltzeko kanakek oztopo ugari gainditu behar izan dituzte. Baita bidean apetitua ez galtzeko estrategiak etengabe berrasmatu ere.

80ko hamarkada gatazka-tsuak aztarna sakonak utzi zituen Hego Pazifikoko uhartedian. Horren erakusle, belaunaldi batek eginiko hautu zailak eta horren ondorioz piztutako borrokek utzitako minak aintzat hartu gabe, ez dago ulertzerik ordutik honat deskolonizazio prozesuak izan duen bilakaera. 1986an Nazio Batuek Kaledonia Berria (Kanak) deskolonizazio es-
peroan diren lurraldeen zerrendan sartu zuten. 1988an, berriz, metropoliaren eta kanaken arteko lehendabiziko akordioa gauzatu zen, Matignon jauregian, Parisen. Hamar urte geroago, Noumean, Kanakoko hiriburuan, bigarren hitzarmen markoa izenpetu zuten aldeek.

Gauzak horrela, azkeneko 30 urteotan trantsizio prozesua kozinatu da lurraldean, su-txikian, burujabe izateko gai izango den jendartea eraikitzeke asmoz. Bistan da trantsizio horren gaineko bilanak zuriak eta grisak dituela. Adierazle sozioekonomikoei erreparatuz gero, eskualdeko barne produktu gordin handienetarikoa du Kanak. Alta, aberastasunaren banaketari dagokionez, emaitzak ez dira harro egoteko modukoak, koloniza-

tzaileen ondorengoak baitira maiz bertako lurrek gordetzen dituzten natur aberastasunen ustiapenaren onuradun nagusiak. Noumea inguratzen duen probintzian gehiengoa dira errenta altua duten metropoli za-leak. Iparraldeko probintzian eta Leialtasun uharteetan, ordea, hitzarmenen aterpean kanaken gobernantza berria garatu da. Hexagonoan ez dira falta erakunde sistema errepublikarraren eta kanaken eredu tradizio-nalaren artean oreka berriak sortzeko helburua zuen Matignongo Hitzarmenak frantziar Konstituzioa bihurritu zuela defendatzen duten zuzenbide adituak. Toki-ko eskuinak –LREMeko ordezkarien diskurtsoa ez da argiki lerrokatu orain arte– txosten horiek baliatzen ditu etengabe hauteskunde errolda berezia auzian emateko. “Berdintasun” printzipioaren izenean, Kaledonia Berrian egingo den kontsulta Frantziako bertze edozein

Azaroaren 4ko kontsulta helmugara
heltzeko etapa garrantzitsua da. Kanakek
botoa emanez erabakiak hartzearen
zaporea dasta dezatela da
independentisten erronka nagusia

lurraldetan antolaturiko bozketetan baliatzen diren arau berdinak erabilia egitea nahiko lukete. Hori da be-raien gose zaharra. Horrela, kanakei herri kolonizatuaren izaera ukatuko liekete, bide batez, erreferendume-rako Nazio Batuek ezarritako joko eremua ezbaian emanez. Horregatik, kontsulta aurreko inkestek hautes-kunde arruntetan erabiltzen den errolda izanen dute oinarri, azaroaren 4ko kontsultan errolda berezia erabi-liko dela kontuan izan gabe. Lehen bozketa honetan, baina, orotara hiru egin daitezke, independentistek bo-toa emateko gosea piztea dute helburu. Hau da, azaroak 4an ahal den eta herritar gehienek hartzea zaporea bu-rujabe izateari. Jakinik jateko gogoa janez datorrela. •

MENDIAN IHES

Historian zehar 73 aldiz sarraskitutako yezidi herria, etxean bertan errefuxiatu

Yezidiek Sinjarren jasandako sarraskiak eraman zuen Estatu Islamikoa munduko albistegietara lehen aldiz 2014an, jihadistek milaka lagun hil baitzituzten gupidarik gabe Irakeko ipar-mendebaldeko inguru horretan. Izugarrikeria, gainera, ez zen horretan geratu: emakume yezidi ugari bahitu eta Ar-Raqqa hiriko azokan esklabo gisa saldu zituzten. Basakeria horren ostean, Estatu Islamikoa etengabe izan da protagonista hedabideetan, eta egun badakigu bere porrota, kalifa herri moduan behintzat, hurbilago dagoela.

Yezidiek, ordea, ez dute oraindik jasandako genozidio saiakera gainditzerik izan. Horren erakusle, Irakeko eta Kurdistango errepideetan aurki daitezkeen errefuxiatu kanpalekuetan pilatuta jarraitzen dute, indar politiko eta armatuen borroketan harrapatuak.

Estatu Islamikoa 2014ko udan Sinjarrera hurbiltzen ari zenean, Irakeko Kurdistango Gobernu Autonomoak pexmergen babesa izango zutela ziurtatu zien yezidiei. Jihadistak heltzear zirela, baina, militarrek erretiratzeko agindua jaso eta yezidiak babesgabe utzi zituzten. Arrakasta barik saiatu ziren yezidiak euren kabuz defendatzen, eta, azkenean, Sinjar hiriaren inguruko mendietara ihes egin beste aukerarik ez zuten izan. Bertan, Estatu Islamikoak setiatu egin zituen, milaka lagun erailez. Gehiago hil ez bazituen, PKKko gerrillariak eta YPGko milizianoek esku hartu zutelako izan zen. Bi indarrek korridore bat irekitzea lortu zuten tiroka, milaka yezidi sarraskitik salbatuz.

 **IRAK** / Aitor Aspuru

Duela lau urte Estatu Islamikoak sarraskitutako yezidiek errefuxiatu kanpamentuetan pilatuta jarraitzen dute Sinjarren, ahal duten bezala bizirauten. Irakek abandonatu egin ditu, eta, orain, Turkiak jihadisten lana bukatzeko erakutsitako asmoari egin behar diote aurre. Eraiketak eta emakume bahiketak errepikatzen ari dira.

Pairatutako exekuzio jendetsuek eta emakumeen aurkako delituek, baina, orbain sakona utzi dute yezidien artean. Egun ere, Siriako basamortuan Estatu Islamikoaren esku diren herrixkak askatzen dituztenean, esklabo gisa izan dituzten emakume eta neskato yezidiak agertzen dira.

NORTZUK DIRA YEZIDIAK?

Yezidiak gutxiengo etniko bat dira eta gehienbat Irakeko Kurdistanen daude errotuta, nahiz eta Rojavan, Kurdistan

Jalil Mahmoud buruzagi yezidia, Durangotik Lalesh gune sakratura bisitan joandako emakumeetako batekin. GAUR8

siriarrean, ere badauden komunitateak. Berez kurduak badira ere –euren hizkuntza sakratua kurdua da–, erlijioa da ezberdintzen dituen ezaugarriarik garrantzitsuena. Antza, zoroastrismoan dute jatorria euren sinismenak. Askoren aburuz, sinismen horiek osatzen dute kurduen jatorrizko erlijioa. Hori jakinda, eta yezidien berri izateko, durangarrez osatutako talde batek –gehienak emakumeak– Laleshera jo zuen abuztuan, euren toki sakratura. Duhok hiri kurdutik

ordubetera dago, segurtasun neurri handiekin babestuta.

Yezidien arabera, Noek uholde nagusiari aurre egin zionean, Lalesheko menditik ateratzen zen ura zuria zen, beste ur guztia belztu zen bitartean. Horregatik, ur horietan bataiatzen dira yezidiak, jaio eta astebetera edo 40 egunera. Umeek ezin badute hara jo –atzerrian bizi direlako, adibidez–, bertan hartutako ura erabiltzen da. Horrez gain, emakumezko bat Estatu Islamikoaren esku egon bada, berriro bataiatzen dute Laleshen.

Hori guztia azaldu zuen Jalil Mahmoudek, durangarrei tenplua erakutsi zien gizonezkoak. Zenbait ohitura bitxi ere aipatu zituen, adibidez, gela batean dauden oihaletan korapiloak egiteko beharra nahi bat eskatzeko.

ISLAMISTEN HELBURU

Yezidiek jihadisten gorrotoa pizten baldin badute, islamizazio prozesuari behin eta berriro aurre egin diotelako da. Kurdu gehienak musulmanak bilakatu diren arren, yezidiek euren jatorrizko erlijioari eutsi diote. Horrek fundamentalisten jomugan jarri ditu eta genozidio saiakerak pairatzea errealitate errepikakorra da eurentzat: «Historian 73 aldiz saiatu dira gu akabatzen, Estatu Islamikoaren azkenengoa besterik ez da», adierazi zuen Jalilek. Aurretik, XXI. mendean bertan, beste talde islamiarren erasoak ere jasan dituzte.

Fundamentalisten ustez, yezidiak deabruaren jarraitzaileak dira, sua gurtzen dutelako beren Urteberri egunean, apirilean hain zuzen. Horrek hondamendia ekarri badie ere, Jalil saiatzeko da umore ona ez galtzen: «Nire lagun batek behin baino gehiagotan eska-



tu dit islama onartzeko, beste-
la infernura joango bainaiz.
Antza, musulmanak ez diren
guztiek infernuan bukatuko
dute. Nigatik primeran, horre-
la Shakira ezagutuko dut!».

Jalilek umorea ez galduaga-
tik, yezidien egoera ez da ez
barre egitekoa: 2014tik yezidi
gehienak ez dira etxera itzuli
eta errefuxiatu kanpamentue-
tan bizi dira. «400.000 fami-
lia bizi dira kanpalekuetan. Hi-
labete batzuetarako irtenbidea
zen, baina lau urtez luzatu da
jadanik», azaldu zuen yezidien
komunitateko buruak. Hori
entzunda, durangar batek gal-
detu zion Jalili aukerarik ba al
zegoen errefuxiatuak bisita-
tzeko. Yezidiaren erantzuna
adierazgarria izan zen: «Duho-
keko Gobernuak kontrolpean
ditu kanpamentuak eta ezin
da bertan baimenik gabe sar-
tu. Neurri hori hartu dute
PKK-k neskak gerrillara era-
maten zituelako». Jalilen eran-
tzunean ez dago Abdullah
Öcalaek gidatutako erakunde-
aren aldeko zantzurik, edo,
behintzat, durangarrek ez zu-
ten halakorik sumatu.

EUSKALDUN BATEN BEGIETAN

M. gazte euskalduna da. Udan
itzuli zen bere herrira, urte er-
di Rojava eta Sijar artean igaro
ondoren osasun laguntzako la-
netan. Horretarako, Siria eta
Iraken arteko muga hainbat al-
diz zeharkatu zuen legez kan-
po. Bertara bueltatzeko asmoa
duenez, nahiago du anonimo-
tasuna mantentzea.

«2014an yezidiek ez zekiten
PKK zer zen ere, baina pex-
mergek salduta laga zituztene-
an eta gerrillarien laguntza ja-
so zutenean, hori aldatu egin
zen, nolabait. Alabaina, egun
oraindik ere batzuk ez dira gai
erakundearen izena ondo esa-
teko», azaldu du M.-k.



Hildako gerrillarien
omenezko gunea,
Sinjarko mendien
magalean.
GAUR8

Gaztearen aburuz, Sinjarren
dagoen errealitatea ez da sa-
murra. «Yezidi gehienak ez di-
ra hirira itzuli, mendian gera-
tu dira Nazio Batuek jarritako
kanpadendetan. Behin-behi-
neko konponbidea zen, baina
aintzat hartu beharra dago hi-
rian egun osoan ez dagoela ia
elektrizitaterik. Hortaz, berdin
zaie leku batean zein bestean
egon. Mendira igo zituzten
abereak eta han jarraitzen du-
te». Beste askok atzerrira edo-
ta errepide ertzetan dauden
kanpamentuetara jo dute.

Bere lanari buruz galdetuta,
M.-k azaldu du lehen mailako
osasun arreta eskaintzen zuela
Sinjarren: «Ez dago ia bitarte-
korik, eta, erlijioak, gainera, ez
du gure lana errazten. Bestal-
de, begi bistakoa da Estatu Is-
lamikoaren sarraskiek yezi-
dien buru osasunean eragin
lazgarriak izan dituztela, bere-
ziki emakumezkoen artean.
Baina ez dakite nola landu edo
onartu».

Emakumeen harira, zerbait
nabarmendu nahi du M.-k: «Ez
nau harritzen batzuk gerrillan
sartzea. Euren patua da gazte
ezkontzea, seme-alabak izatea
eta bizitza osoa etxean ema-
tea. Bikote horietan ez dago
maitasunik, oro har familie-
k adosten dituzte ezkontzak eta
ospea kontuan hartzen dute
horretarako. PKK'n esperien-
tzia ezberdina bizi dezakete».

ORAIN, BESTE GUDA BATEN ERDIAN

Estatu Islamikoaren aurkako
guda oraindik irabaztear bada-
go ere, yezidiak bestelako bo-
rroka baten erdian geratu dira
orain; Iraken, Kurdistango Go-
bernu Autonomoaren, Turkia-
ren eta PKKren artean, alegia.
«Pexmergek abandonatu oste-
an, yezidiek autodefentsarako
unitate militarrek sortu zituz-
ten PKKren laguntzaz; YBSak,
hain zuzen. Sinjarren daude
gehienbat», azaldu du M.-k.

Zilegi izan zitekeen egitas-
moak, ordea, Kurdistango

errealitate politiko korapila-
tsuarekin egin du talka. Haste-
ko, Sinjar askatu eta Estatu Is-
lamikoa bota ostean, YBS eta
pexmergen arteko tirabirak
egon ziren. Hori gutxi balitz,
Kurdistango Gobernu Autono-
moak independentzia errefe-
renduma bultzatu zuenean
2017ko irailean, Sinjar, Kirkuk,
Tuz Kurmatu edo Maxmur be-
zalako lurraldeen kontrola ko-
lokan jarri zuen. Hain zuzen,
zonalde horiek guztiak Kurdis-
tango Gobernu Autonomoa-
ren esku zeuden praktikan,
baina Irakek ez du ofizialki
onartzen tokiok autonomia-
ren barruan daudenik. Hortaz,
aukera baliatuta eta lurraldea-
ren batasuna aitzakia, galdeke-
taren ostean eremuok militar-
ki berreskuratzeari ekin zion
Irakeko Gobernu Zentralak.

«Pexmergek osipa egin zuten
berriro Irakeko Armada agertu
baino lehen, eta YBSek akor-
dioa lortu zuten geratzeko. Eu-
ren *checkpoint*-etan Irakeko

«Bistakoa da Estatu Islamikoaren sarraskiek yezidien buru osasunean eragin lazgarriak izan dituztela, bereziki emakumezkoen artean. Baina ez dakite nola landu edo onartu»

Yezidiak bestelako borroka baten erdian geratu dira oraingoan; Iraken, Kurdistango Gobernu Autonomoaren, Turkiaren eta PKKren arteko borrokaren erdian, alegia

ikurra ere badago, esaterako», argitu du M.-k.

Sinjarren adostutako estatus berria ez du batere gogoko Turkiak, PKKren etsairik amorratuena. Horregatik, Recep Tayipp Erdogan presidente turkiarrak iradoki zuen bertan sartuko zirela –Iraken, Sirian eta Rojavan egin bezala– “terroristekin” amaitzeko. YBSen erantzuna zuhurra izan zen eta PKKko ikurak –Öcállanen edota hildako gerrillarien irudiak– kendu egin zituzten, erasoak ekiditeko, eta, bermatzeko, behintzat itxuraz, alderdi kurdua Sinjarren hedatuta ez da goela.

TURKIAK BUKATU DU LANA

Edonola ere, Turkiak mehatxua gauzatu egin zuen abuztuaren 15ean, Zeki Sengali PKK-k Sinjarren zuen komandantea hilez, beste hainbat militante kurdurekin batera. Agintari kurduak ospe handia zuen, YBSen bultzatzailea izan baitzen. Yezidiekin lehenengo aldiz 70eko hamarkadan jarri zen harremanetan, Alemanian. Hara jo zuen lan bila eta Saxonia Behereko Celle hirian bizi izan zen denboraldi batez. Bada, hiri horretan hainbat yezidi ezagutu zituen gerora PKK-ko komandante bihurtu-ko zen gizonak.

2014ko sarraskiaren ondoren, yezidiekin harremanetan jarri zen berriro Sengali, ko-

munitate horretako kideak konfederalismo demokratikora erakartzeko eta Sinjarren autodefentsa unitateak sortzeko. Yezidiek *Osaba* ezizenarekin ezagutzen zuten Sengali.

Bada, abuztuaren 15ean, Sengalik yezidien aurkako sarraskia gogoratzeko ekitaldi publiko batean parte hartu zuen, eta, ostean, Turkiako Armadako hegazkin batzuek bonbardatu eta erail egin zuten. Hori horrela, Turkiak, zuzenean edo zeharka, bere helburu militar eta politikoak ez ezik, Estatu Islamikoarenak ere bete zituen, yezidien artean sona handia zuen buruzagia erailda. Horrez gain, Singaliren aurkako erasoak kurduen eta estatubatuarren arteko harremanak tenkatu zituen. Berez, Rojavako indar politiko eta armatuentzat Sengali erreferente handia zen, eta, kurduen iritzian, ez dago batere argi estatubatuarrek bere aurkako erasoan izandako partaidetza.

KATALUNIA BATEN BEGIRADA

A. Rojavan lanean ari den boluntario kataluniarra da eta egunok gertutik bizi izan zituen. A. ere anomikoki mintzatu da GAUR8rekin, ez baitu nahi lege arazorik izaterik Irakera itzultzean: «Giroa berotu egin zen, eta, nahiz eta mugak itxita dauden, 1.000 lagun baino gehiagok Siria eta Iraken arteko muga gurutzatu ge-



Errefuxiatu yezidien kanpamentuak, Sinjarren. GAUR8

nuen bultzak. Hori bai, Armadak aurrerago gelditu gintuen. Milaka pertsonak parte hartu genuen Sengaliren hiletan».

Momentuz, badirudi egoera ez dela gehiegi aldatu, baina ezin daiteke esan egonkorra denik. Turkiako Armadak hainbat postu jarri ditu udan Iraken eta PKKko gerrillarekin talkak areagotu egin dira. Sinjarren kontrako mehatxua ez du guztiz baztertu, eta, bitartean, yezidiek etxera bueltatu gabe jarraitzen dute, errefu-

xiatu kanpamentuetan edo erbestean.

Bestalde, Turkiak Sirian kokatutako Afringo kantoia kurdua inbaditu zuenetik, hainbat lekukotza zabaldu dira salatzeke Erdoganek babestutako milizia jihadistek yezidien aurka jo dutela. Antza, bortizkeria eta lapurretak ez ezik, emakume yezidien bahiketak eta salmenta errepikatzen ari dira. Turkiarrek, beste behin, Estatu Islamikoaren bide bera hartu dute.



ASKATASUNERAKO HAUTETSONTZIAK

Ibai Azparren Eguillor

Hautetsontziak izan ziren urriaren 1eko ikurrak, eta herritarrak, historiaren lekuko. Urtebetera, gertatu zena adierazteko, hainbat artistak beren sormena eskaini dute eta erreferendumeko botoak biltzeko kutxekin egindako obren bitartez errepresioa salatzeke beren aletxoak jarri dute.

Bartzelonako Ramblak ibiltoki enblematiko eta neurotikoaren bukaeran, turistak *"I love Barcelona"* kamisetak jantzita terrazetan litroko garagardoak edaten ari diren tokitik gertu, baina turismotik aldentuta, erakusketa bat bisita daiteke, duela urtebete herri baten desirak bortxaz mugatu zirela gogora ekartzen duen erakusketa: "55 urnes per la llibertat". Arts Santa Monica museoan eta azaroaren 25era bitartean, Kataluniako 55 artistak hautetsontziak baliatuta egindako obrak jarri dituzte ikusgai. Izan ere, ustez Mater-

nidad de Elnatik ekarritako eta mila-ka beso anonimo eta ikusezinen bitartez zabaldu ziren kutxa horiek hauteskunde egun historikoaren neurria hezurmamitzen dute. Polizia espainola hautetsontziei segika ibili zen arren, Kataluniako herri guztietan "mirakuluz" agertu ziren goiz hartan.

Orain, artista horiek guztiek demokraziaren eta erabakitzeke eskubidearen aldeko konpromisoa erakutsiz burututako lana preso politiko katalanen familiei laguntzeko elkartasun kutxarako utzi dute.

«Katalunia honela imajinatzen dut: gotorleku tinko eta sendoa, jendea-



«55 urnes per la llibertat» Kataluniako 55
artistaren lana da. Iparraldetik
hegoalderaino, konpromiso eta garrasi bat
ikusarazi nahi dute beren sorkuntzarekin.
Orriotan, artelan horietako bederatzi.
MUSEO ARTS SANTA MÒNICA

ren indarrak bateratzen dituen eta horiek giza gazteluetan bezala erakitzen dituen». Horrela definitzen du bere obra Jackie Barralek –lehenengo alboko orrialdean–, ekaitzen aurrean altuera irabazten duen itsasargi gisa, hain zuzen. Nora Ancarolak, berriz, boto-ontzia, urrezko ogiz estalita, altxor bat balitz bezala agertzen du. Alabaina, sarrera itxita dago, itxigailuak haien adierazpenaren ate irekiak izango diren esperoan. Jesus Galdonen obrakohautetsontziak bozkatzeko ekintza bera festa gisa islatzen du, festak askatasunerako eremuak direla aintzat hartuz.

ERREPRESIOA

Gotorlekuak, altxorak eta festak, ordea, ezerezean gelditu ziren erreferendumaren egunean, Segurtasun In dar eta Kidegoen borrorak eszenan agertu zirenean. Zauriak, biolentziaren erresumina eta mendekua legitimitzat jo zituen Borboiak Espainiaren batasuna babesteko, Kataluniako memorian gelditu den urriaren 3ko diskurtsoan. Hori islatu du “En me-són Felipe, quien no paga...¡cobra!”

obran Franc Aleu artistak. Egurrezko bate batean “El preparao” irakur dai-teke, Felipe VI.a errege espainiarra-ren ezizena. Bate horrek, egilearen iritziz, katalanen ahotsak isilarazi nahi izan zituen.

Orduan, indarkeria poliziala justifikatzeko propaganda aparatua mar-txan jarri zuten unea iritsi zen, Ryszard Kapuscinski kazetariak hainbestetan eta ezin hobeki deskribatutako momentua, zeinean prentsa tradizionalak funtzio soziala alboratu, eta boterearen estruktura ustele-i zerbitzatzeko protokolo zaharkituari ekiten dion. Hain zuzen, hedabideen jokabidea hartu du oinarri gisa Este-ve Sabench artistak “Tardor 2017, mentrestant el vot brota” obran; 2017ko udazkeneko prentsako titula-rrer oinarri baten gainean botoz be-teriko hautetsontzi bat ernatzen age-ri da, informazioa propaganda eta gutxiespen bihurtu zela iradokiz. Egi-learen ikuspegitik, nahiz eta errepre-sioa handiagotu, boto independentis-tak ere gora egiten du hauteskunde bakoitzean. Dena den, errepresioak bere horretan dirau eta bozketa ahal-



bidetu zutenak kartzelan daude. Lider independentisten ohoretan eta kartzelariak ez ahazteko saialdian, Pere Bellesek horrela definitu du “Paraula” lana: «Kaiola bat, herrialde bat definitzen duen bandera, Katalunia. Hautetsontzia daraman herrialde bat, bere etorkizuna erabakitzeke. Kaiolan dagoen herrialdea. Kaiolaren koloreek kartzelariak ordezkatzeko dituzte: laranja, Ciudadanos; urdinak, PP; gorriak, PSOE; 155. artikularen alderdiak. Hitzik ere ez».

Espetxeratutako hautetsontzia, kartzelatutako botoa, alferrikakoa da, zulatutako hautetsontzia bezain alferria, demokrazia baliogabetzen du. Delphine Labedanek “Democràcia perforada” deitu dio bere obrari. Zulatutako kutxak urriaren 1a posible egin zuen herria omentzen du.


ERREPUBLIKA ZERUMUGAN

Suntsitutako hautetsontzia sortu du Miquel Arnaudiesek ere, baina bere obra harago doa. Pinturak Muriel Casals politikariaren hitzei aipamena egiten die: «*No som aquí per buscar un somni, nosaltres som el som-*

ni» –“Ez gaude hemen amets bat bilatzeko; geu gara amets hori”–. Artistak «*ja no és un somni*» –“jada ez da ametsa”– baieztatzen du obran: Errepublikak urriaren 27an aldarrikatu zen.

Arts Santa Monica museo ilunean, hautetsontziez gain, pantaila handietan, erreferendumaren egunaren gaineko dokumentala ikus daiteke. «Bai, Errepublika zerumugan», dio hautesle batek botopapera eskuan duela. Errepublika ez da iritsi, baina iritsiko den esperoan dago Pascal Comelade. Bere obran, adierazpide plastiko eta musikalek lokarri gogorak dituzte. Bertan, hautetsontzia konpromisoa hartzen duen musikatresna da. “El Republicòfonek” si nota seinalatuz Errepublikarantz gidatzen gaitu.

Bederatzi artista hauen obrek, beste 46 obrarekin batera, 2017ko urrian gertatutakoa adierazten dute. Gaur, 2018ko urrian, Santa Monica museotik ateratakoan “*I love Barcelona*” kamiseta daramaten eta litroko garagardoak edaten dituzten turisten artean pankarta handi bat ikus daiteke: «*Llibertat presos politics*».



Parte-hartzaile guztien borondatezko inplikazioak forma hartzen joan den erakusketa ahalbidetu du.

Izan ere, joera eta belaunaldi ezberdinetako artisten ahaleginari esker iritsi dira helburura, urriaren 1ean milaka boluntariok egin zuten bezala.

MUSEO ARTS SANTA MONICA





Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

Haurren halterofilia

Askok uste du hurrei ez zaiela komeni pisuarekin ibiltzea; izan eskolako bizkar-zorro astun batekin, izan gimnasioan entrenatuz, nolabait deformatuko diren beldurra da nagusi. Uste hori oso hedatua dago, eta, adibidez, ez duzu aurkituko eskola kirol edo aisialdi programarik pisu-ariketa saioak sartuko dituenik; bada, ezta hori egiteko inolako arrazoirik. Nire lan-kide Moises Gimenezek (@mogifisio) argitaratu berri duen txio-kate batean ederto laburbildu du auzia, eta merezi du hona ere ekartzea.

Ez da gaia asko aztertu behar, uste honek fundamentu askorik ez duela ikusteko. Gure aiton-amonek esango digute (galdetzen badiegu), haurrak gai direla ur-pitar handi bat buruan eramateko, edo egur zama astunak bizkarrean, edo ordu askoan lan neka-garriak egiteko. Ederto dakite, haietako askori tokatu baitzitzaien horrelako lanak egitea umetan. Ez nabil haur-esplotazioa aldarrikatzen, bistan da; baina uste dut ondo datorrela hau kontuan izatea, haur batek egin dezakeena ebazterako orduan.

Sineskera honen jatorria 1980ko hamarkadan kokatu behar dugu. Mustatzen eta ile "frijituen" sasoi hartan kirola modan jarri zen, herri askotan kiroldegiak eraikitzen hasi ziren eta aisialdian eta hezkuntzan jardun fisikoak garapen handia izan zuen. Urte haietan, Ameriketako Pediatria Akademia (APA) haurrak pisuarekin eginitiko ariketaren kontra azaldu zen, eta horrek oihartzun handia izan zuen; kontua da APAk egindako gomendioa ikerketa ahuletan oinarritzen zela. Adibidez, Sewallek eta Michellik 1986an argitaratutako artikulu famatu bat, non gimnasioko lanak lesio indize altua zuela adierazten zen; hori bai, prozedura akats bat oinarri hartu-

ta (ikertutako taldea txikiegia zen). Bi urte geroago, Michellik berak akatsa onartu zuen, baina ordurako artikulua munduko kiroldegi eta ikastetxeetan bolo-bolo zebilen... Egin kontu APAk berak ere ez zuela zuzenketa onartu, eta 1990an lehengo gomendio okerra berretsi zuela: haurrek pisuarekin eginitiko ariketak zein indarra lantzen duten entrenamendu motak saihestea, alegia.

"Teoria" hori hiru argudio nagusitan oinarritzen da: lesio indize altua, hazkundearen distortsioa, eta arazo endokrinoak. Bada, ukatu ditzagun banan-banan. Lehenengoari buruz, beste jarduera fisikoei alderatuz gero, ikusiko dugu indartze eta espezializazio goiztiarrek, lesio arriskua handitu barik, modu nabarmenean jaisten dutela. Hazkundearen distortsioari buruz, berriz, argudioaren baliagarritasun eza are nabarmenagoa da, hezurren hazkunde egokia bultzatzen duen faktore na-

gusietako bat, hain zuzen ere, karga baita. Bestalde, muskuluek nerabezarora arte ez dute bolumenik hartzen, beraz, ez dute hazkundera oztopatzerik. Gainera, hezurren hazkunde-plaka hondatzeko arriskua askoz ere handiagoa da futbolekin, halterofiliarekin baino (debekatuko al dugu futbola?). Azkenik, indar-entrenamenduek aldaketa endokrino eta metabolikoak eragiten dituzte, noski, baina nagusien artean gertatzen direnak bezalakoak – ez gehiago eta ez gutxiago – eta, gainera, aldaketok onerako izaten dira.

Argi dago? Haurrari gustatzen bazaio, utz iezaiozue indarra lantzen beldur barik; eta inork kargu hartzen badizue, artikulu honetan azaldutako argudioak erabil ditzakezue. Bide batez esanda: berandu, baina azkenean APAk ere iritziz aldatu zuen, eta 2008an argi berdea eman zion haurren indar-entrenamenduari. Beste sineskera absurdo bat gutxiago! •

www.abante.eus



Haurrari gustatzen bazaio, utz iezaiozue indarra lantzen beldur barik.

GAUR8

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Kirruli akabatu nahian hil zuten Cabacas

Bilboko epaiketaren hasierako egunetan lekukotasun gordinak entzun ditugu. Latzena Laia Caballerren ahotan, malkoak barruan gorde ezinik. Kale kantoi ezezagun horretan jasandakoa betirako zama du, ez soilik pilotakadak txikitutako Iñigo Cabacasen burua eskuetan izan zuelako, baita Ertzaintzaren basakeria bera guztiz ulertezina egiten zaiolako ere. Eta harridura horren zergatiaz jabetzen naiz: duela urtebete urriko sasoi honetan Katalunia aldean egon ginenok manifestari ultra espainiarrak mossoen furgonetan aurka kolpeka –baita iraui nahian ere– ikusi genituen, eta, poliziakide horiek, geldi-geldirik, eusten, oldartzeak gauzak oker ez zitzen.

Basakeria bai, baina ez nonahi eta nolanahi, ez edozeinen aurka. Ugartekoren ahotsak osatzen du puzzlea: Kirruli herriko taberna bertan izanik, «guztiarekin sartu» behar zuten, horrexegatik zeuden eskopeta horiek zuzen-zuzen jarrita, mina egiteko moduan, «fusilamendu» baten antzera, norbait hiltzeko arriskuarekin. Horatik aurrera, zorte onak ala zorte txarrak erabakitzen du zer gertatzen den. Cabacasen hilketa eskuetatik joan zitzaion, hori baino ez, torturatzen zutenei Mikel Zabaltza edota Gurutze Iantzi eskuetatik joan zitzaizkien bezalaxe. Noizbait gertatu behar zuen, egunero-egunero ez bazen, astero izaten baitziren antzeko oldartzeak. Ez gaitezen engaina: oldartze hura gaur egungo ikuspegitik eta epaiketaren entzundakotik ikaragarri gogorra iruditzen bazaigu ere, zauritu oso larri bat eragin izan ez balu, ez genukeen albistegietan ikusiko.

Jakina da epaiketaren ez dituela ardura guztiak garbituko, baina Maria Diaz de Haron gertatu zena aski argituta ere, hankamotz geldituko da argazkia, testuinguru hori gehitzen ez badiogu. Jada oroitzen ez badugu ere, 2012 hartan bertan, Cabacas hil baina astebete lehenago, Ertzaintzak berak zauri oso larriak eragin ziz-

kion beste gazte bati, Xuban Nafarrateri, Gasteizen, greba orokor batean izandako mobilizazio batean. Edo bost hilabete geroago, Atarrabiako Aingeru Zudairek begi baten ikusmena galdu zuen, Iruñean Polizia espainolak emandako pilotakada baten ondorioz.

Urte horretako otsailean, bestalde, Iñaki Igerategik eta Iñaxio Otañok tortura gogorrek salatu zituzten Guardia Zibilaren esku izan ostean; ezagutu ditugun milaka kasuetako azkena izan zen. Sortu oraindik legeztatu gabe zen. Maiatzean Arnaldo Otegi eta berarekin batera atxilotutakoek espetxean segituko zutela berretsi zuen Gorenak. Kirruli eta beste ehun bat herriko taberna, auzitegi beraren zain ziren, Auzitegi Nazionalak enbargoa agindu ostean. Aurore Martin harrapatu eta Guardia Zibilaren esku jarri zuten jarraian, Batasunakoa izateagatik. Urtean 665 presorekin hasia zen. Eta abar...

Testuinguruak ematen dio benetako neurria hilketa horri: ezker abertzalea ahal bezain gogor kolpatzen ari ziren, aurrerapausoak edo eszizioak eragiteko itxaropen itsuaz

Itxaropena nagusi zen, halere, Euskal Herrian. Urte erdi eskas lehenago, Aieteko Adierazpena onartu zen eta ETak borroka armatua behin betiko utzita zuen. Baina aurreko inertzia errepresiboei behar berriak gehitzen zizkieten kale kantoi horretan tiro egin eta eginarazi zuten guztiei: ezker abertzalea ahal bezain gogor kolpatzea, bere bidean atzerapausoak eragiteko konfiantzan agian, bere barruan kontraesanak –eta ahal bazen eszizioak ere– eragiteko ahalegin sutsuan.

Cabacas hil zuten, baina Kirruli, ezker abertzale osoa, akabatu nahiak bultzatzen zituen ertzain, ertzain buru eta agintari politiko horiek. Familiaren samina arintzen saiatzeaz gain, norbaitek noizbait onartu beharko dio hori ere ezker abertzaleari, egiari zor. •



Irudian, Errenteriako Erromeria Egunean jasotako irudia. Euskal dantzaren inguruko jakituria biltzeko, ordenatzeko eta babesteko beharra nabarmendu dute. Jon URBE | FOKU

EUSKAL DANTZA UNIBERTSITATEAN

Arriskuan dagoen ondarea ordenatzeko eta babesteko saiakera

 **JENDARTEA** / Amagoia Mujika Telleria

Non jasotzen da euskal dantzaren eta musikaren inguruko jakituria? Nola ziurtatzen da transmisioa? Nork josten ditu irakasteko irizpideak? Euskal dantza zoko batean galtzeko arriskuaren aurrean, UPV/EHUK titulazio berri bat sortu du, «Euskal dantza: tradizioetik sorkuntzara» izenekoa, ondare horri aterpea emateko.

Euskal Herriko Unibertsitateak eskaintza berri eta berritzaile bat egin du 2018-2019 ikasturtean master eta graduondoko propioetan: “Euskal dantza: tradizioetik sorkuntzara” izena duen Uni-

bertsitate Hedakuntza Diploma. Bederatzi hilabeteko ikasturteak teoria eta praktika uztartuko ditu eta hiru modulutan banatuko da, bakoitza hiru hilabetekoa. “Euskal Dantzaren teoria eta historia”; “Tradizioetik sorkuntzara, esperientzia eta ekarpen be-

rriak”; eta “Musika, dantza eta pedagogia” dira moduluen izenburuak eta horietako bakoitza modu independentean egin daiteke. Modulu bakoitzak ikastaro osagarri kalifikazioa du eta 10 kredituko balioa. Hartara, hiru moduluak egiten dituenak Diploma lortuko du eta 30 kreditu.

Eskaintza akademiko berria dantzari eta musika eta dantza tradizionalen eskoletan da biltzaneizuzendua dago. Gurutze Ezkurdia, Iñaki Goirizelaia eta Miren Gabantxo dira ikasketen zuzendariak. Gabantxoren hitzetan, «guretzat ikasle potentziala gaur egun herrietako dantza

eta kultur taldeetan dabilena eta eskolaz kanpoko jardueratan begirale dabilena da. Zergatik? Horiek direlako egun transmisioak; modu ez formalean transmisio lana egiten ari direnak. Gure helburua da pertsona horiek beren artean kontaktuan jarri eta adostasun batera iristea».

Miren Gabantxoren ustez, UPV/EHUn eskaintza oso interesgarria da eta hutsune bat betetzen saiatuko da. «Eskaintza ez da berritzailea, iraultzailea baizik. Euskal Herriko Unibertsitatea Espainiako Unibertsitate sistemaren barruan dago. Espainian musika eta dantza ikasketak unibertsiti-

tate sistematik kanpo daude; horregatik sortu zen, adibidez, Musikene. Euskal Herrian, gainera, arazoa are larriagoa da, euskal dantza eta musika tradizionala deitzen dena –agian ez da tradizionala, popularra baizik–, kulturaren bazter batean geratu direlako. Ume txikiei erakusten zaie euskal dantza eta euskal musika eskolaz kanpoko jardueretan, baina hortik kanpo, non dago aukera euskal musika eta euskal dantza ikasteko? Kukai salbuespena da, tradizioan oinarritutako dantza garaikidea egiten duelarik. Hori kenduta, apenas dagoen aukerarik. Ez dago modu formalean ikasteko aukerarik».

Hartara, kezka hori abiapuntu, saiakera bat egin dute lehen aldiz euskal dantza unibertsitateak eskaintzen duen sistema formalaren barruan sartzeko. «Unibertsitateak formaltasuna eskaintzen du eta saiakera bat egin dugu orain arte sistematik kanpo egon dena sisteman sartzeko. Eta hori da iraultza», gaineratu du Gabantxok. «Azkenean, zuk ez baduzu sistema akademikoa- ren barruan, ezagutzaren sistemaren barruan, gauza bat jartzen, hori ez da existitzen eta bazterrean geratzen da, zokoratuta», gehitu du.

Unibertsitateak, finean, ezagutza transmititzeko prozesu bat eskaintzen du eta garrantzitsutzat jo dute euskal dantza transmisio hari horretan txertatzea.

ATERPEA EMATEKO BEHARRA

Galdera bota du Gabantxok; «euskal dantzaren inguruko ezagutza eta jakituria non gordetzen dira? Kultura higiezina zailagoa da gordetzen. Ondare fisikoa ez dena askoz ahulagoa da eta euskal dantzen kasuan,



are ahulagoa, izan dugun egoera soziopolitikoaren ondorioz. Euskal Herriko Unibertsitatean ez badiogu aterpea ematen, edozein unetan desagertzeko arriskuan dago. Jakituria duten musikari eta dantzari askok adin bat daukate dagoeneko eta hiltzen ari dira. Egoera kritiko batean gaude».

Gabantxoren iritziz, Euskal Herriko kasuan zokoratze eta ahazte horrek beste ertz bat ere badauka: «Mundu globalizatuan bizi gara eta Internet bidez beste kultura eta musika batzuei buruzko informazio mordoa jasotzen dugu, Youtube-ren bitartez, adibidez. Jario horren parean, gurea dena, propioa, erabat isildua eta zokoratua geratzen da».

Euskal dantzari aterpe bat emateko beharretik ez ezik, jasota dagoen hori ordenan jartzeko beharretik ere badu eskaintza akademiko berriak. «Euskal musika eta euskal

Lerroon gainean, bi gizonezko plazan dantzan Zumarragako erromeria batean. Adituek kezkatuta diotenez, gero eta jende gutxiagok daki dantza egiten modu herrikoian. Gorka RUBIO | FOKU

dantza hankaz gora daude. Bakoitzaren borondatearen arabera eta bakoitzak ikasten duen edo ahal duen moduan egiten dira gauzak. Babesteko eta jasotzeko beharra ez ezik, ordenatzeko beharra ere bada- go. Eta adostekoa. Musikarien, dantzarien, antropologo- en... arteko sarea josi beharra dago. Energia hori guztia galtzen ari gara eta hori bideratu beharra dago», defendatu du.

Irakasleei dagokienez, dantza irakasle, ikertzaile eta kore-

ografo sonatuak arituko dira eskaintza akademiko berrian. Beste zenbaiten artean, Jon Maya, dantzaria eta sari asko jaso dituen Kukai konpainia- ren zuzendaria; Juan Antonio Urbeltz, euskal folklorearen ikerlari eta Argia taldearen zuzendaria; Iñaki Irigoien, dantzaria eta euskal dantzaren ikertzaile aktiboa; Oier Araola- za dantzari eta antropologoa; Sabin Bikandi etnomusikolo- gian doktorea eta 2015ean Max saria jasotakoa; Patxi La-

«Euskal dantzaren ezagutza eta jakituria non gordetzen dira? Kultur ondare immateriala zailagoa da gordetzen. Ondare fisikoa ez dena askoz ahulagoa baita, euskal dantza kasu»

«Euskal Herriko Unibertsitatean ez badiogu aterpea ematen, edozein unetan desagertzeko arriskuan dago. Jakituria duten musikari eta dantzari askok adin bat baitaukate dagoeneko»



Haur talde bat dantzan Debako jaietan. Unibertsitatearen eskaintza akademikoa herrietako taldeetan hurrekin aritzen direnei bideratuta dago bereziki.

Monika DEL VALLE | FOKU

borda AIKO taldeko musikaria eta dantza irakaslea; Iñaki Goizelaia UPV/EHUko errektore ohia eta Amilotx dantza taldeko zuzendaria; Baionako Maritzuli konpainiako Claude eta Jon Iruretagoiena eta Jon Gaminde, dantzari eta musikaria. Klaseak, gainera, jardunaldiekin, solasaldiekin eta saio bereziekin osatuko dira.

Ikasleak oinarriak, egiturak, sistemak eta historia ikasiko ditu. Kontzeptu teorikoak eta praktikoak eskainiko zaizkio euskal dantzen sorkuntza eta eraldaketa ulertzen laguntzeko, tradizioetik gaur egunera arte.

IRAKASTEKO MODUA

Eduki teorikoak eta jardun praktikoa ez ezik, ikuskera pedagogikoa eskaintzeko asmoa ere badu heziketak. Gabantxoren hitzetan, «oso arrunta da norbait nerabazarora iristean, dantza uztea. Horren atzetik

badago metodologia kontu bat, irakasteko modua, nork eta nola irakasten duen... Horren harira, interesgarria da irakasteko moduak adostea. Ikuspuntu pedagogikoa ere garrantzitsua da eta hori txertatzen saiatu gara».

UPV/EHUren titulazio berri hau, finean, sektorearen eskakizun bati erantzuna ematera dator. «Jende askorekin hitz egin dugu eta kezka horiek jaso ditugu. Baten batek tiratu behar du aurrera. Unibertsitatearentzat zaila da, bertako curriculumaren barruan ez dagoelako halakorik. Arrakala bat sortu dugu eta presionatu egin dugu hau unibertsitatearen aterpean sartzeko, oso modu umilean. Baina ideala litzateke horrek indarra hartzea eta bidean sakontzen segitzea», nabarmendu du Gabantxok.

Mundu anglosaxoian ohikoa da unibertsitateko curriculumaren barruan dantza eta mu-

sikarekin lotura daukaten ikasketak sartzea. Hori landuta eta erregulatuta daukate. Bada, beraz, zein ispilutan begiratu.

Matrikulazioa zabalik egongo da urri osoan. Lehenengo modulua orain hastekoa zen, baina atzeratu egingo dutela aurreratu du zuzendariak. «Jende askok deitu digu interesa duela esanez, baina astean bi arratsalde oso eskatzen ditu eta askok ezin dute exijentzia maila horrekin, ezin agendarekin bateratu. Hori antolatu beharko dugu. Baina interesa badago».

Ikasturtea Leioako Hezkuntza Fakultatean eskainiko da, astean bi egunetan, arratsalde, bost orduko saioetan. Esan bezala, hasiera batean urrian bertan hastekoa zen baina atzeratu egin dute. Matrikularen prezioa 900 eurokoa izango da (hiru moduluetako bakoitza 300 euro).

«OSO JENDE GUTXIK DAKI EUSKAL DANTZA EGITEN»

«Umberto Ekok esaten zuen nola sailkatzen den goi mailako kultura eta behe mailako kultura. Euskal dantza eta musika beti geratzen dira behe mailako kulturaren, bigarren mailakoak direla uste dugulako. Eta larriena da sinesmen hori euskaldun askoren buruan ere badagoela», azaldu du bere kezka Miren Gabantxok. Gaur egun oso bistakoa den errealitate bat nabarmendu du, «larria da, baina gaur egun jende askok ez daki euskal dantzak dantzatzeko eta ez du euskal musika ezagutzen. Hori bai, seguru badakitela Shakiraren dantza bat dantzatzeko».

UPV/EHUko euskal dantzaren inguruko titulazio berriaren zuzendarietako bat da Gabantxo. Berak garbi dauka, «merezi duen tokia eman behar zaio euskal dantzari. Gure gizartean dantza beti izan da sozializazio tresna oso indartsu bat eta gaur egun ez da horrela. Espazio publikoan zein espazio pribatuan, euskal musika jarritz gero, oso jende gutxi daki dantza egiten modu popularrean. Hori galdu egin dugu».

Hartara, galera horren inguruan hausnarketa piztea eta euskal dantzen ezaugarriak eta esanahiak ulertzea da unibertsitate diplomaren helburu nagusia.

Inguruaren ajeak

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Eguneroko zamaren nekeak eraginda edo, azkenaldian, bi multzotan sailkatu dut inguratzen nauen jendea. Badago jendea kritika eraikitzaileak egiten ez dakiena, ura pasatu ondoren urtegia egin beharko litzatekeela aholkatzen duena, besteren lanari baliorik aitortzen ez diona, besteen lanari prezio baxua jartzera ausartzen dena, eta ustezko negoziaketetan astotik jaisteko prestasunik izaten ez duena. Badago jendea besteek zer egin beharko luketen esan

bai baina zerbait egiteko eskatzen zaionean beti okupatuta dagoena. Eta, nola ez, badago pasatutako garaiak beti hobeak zirela nostalgiaz oroitzen duen jendea ere. Egunerokoa hura gabe errazagoa izango litzatekeela erakusten dizun jendez inguratuta bizi zara, eta badakizu.

Baina, zorionez, badago bestelako jendea ere. Badago egiten duzun ahalegina aitortzen eta eskertzen dizun jendea. Baita egunero esku artean duzun lan mordoaren jakitun izan eta esku

bat botako dizuna ere, zuk eskatutakoa ematen saiatuko dena edo eskatu gabe zerbait eskaintzeko prest egongo dena. Kritikak hobetzeko ikuspegiz egiten dituen jendea, eta giro ona sortzeko bere onena eskaintzen duen jendea. Zoritxarrez, aurreko multzoan aipatutako jendearen erruz erre eta zure ondotik aldentzen da bigarren multzo honetako jendea, eta orduan ohartzen zara egunerokoa zenbat errazten zizun. Baina urrutiagotik bada ere, badakizu ondoan izango duzun jendea dela. •

Irati txikiak

Joxean Agirre

Hegazti, txori, narrasti eta piztia mota bakoitzak omen du bere hizkuntza. Adituen arabera, gainera, lekuan lekuko dialektoak osatzen dituzte, txokokeriak alegia. Eta ohiturak ere bai: igelek, esate baterako, hirunaka kantatzeko joera dute. Badaude gizakion hizkuntza imitatzen saiatzen direnak ere. Balmasedako taberna bateko loroak, belarrira xuxurlatuz gero, «Gora Euskadi askatuta» esaten zuen. Guardia zibilak barruan zirela norbaitek belarria berotu zion eta hiruzpalau aldiz aldarrikatu omen zuen esaldia eta kuartelera eraman zituzten loroak eta tabernan zirenak. Urrestillako lagun batek behin kontatu zigunez, Pako Aris-tiren aitona zozo bat hezi omen zuen

etxean eta “Eusko gudariak” kantatzen omen zuen.

Hegazti eta abereek bai, baina zuhaitzek hitz egiten al dute? Zuhaitzekin hitz egiteko frantziskotarra izan behar da, Pello Zabala bezala. Egunkari honetako bere azken zutabe bikainean ulertu nionez, besarkatu ere egiten ditu.

Orain dozena bat urte mila eta gehiago pago sartu nituen (bi semeek lagunduta), eta dagoeneko zeruraino luzatuta daude. Haiei begira tarte luzeak egiten ditut, hitz egitera iritsi ez banaiz ere. Hilabete barru gorri-gorri jarriko dira eta jaiotetxetik gertu Irati txiki bat dudala sentitu ohi dut.

Insignis pinuaren hondamendiari buelta emateko ez zait irtenbide hoberik

bururatzen Irati txikiak sortzea baino, edo, Gipuzkoatik ari naizenez, Pagoeta txikiak izan daitezke. Ekologismoak bi hamarkadetan lortu ez duena onddo batek lor dezake oso urte gutxian: gure basoak eraberritzea. Horretarako, erakundeak diren lursailetan (33.000 hektarea omen) jatorrizko basoak berreskuratzen saiatu beharko lukete, baina zalantza handiak ditut.

Bildu agintean zegoenean basoak eraberritzeko plan baten zirriborroa aurkeztu zuen eta kalapita txiki bat eragin zuen sektorean. EAJk abagune ederra du orain plan hobe bat baduela frogatzeko, baina, itxura guztien arabera, diru publikoarekin eredu estentsiboak laguntzen jarraituko du. •



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:



DERLAN MOTORREN ZARATA ENTZUN DADIN ZARAUZKO HISTORIAN

Amagoia Mujika Telleria

1954-1962 urte bitartean, Zarauzko Basor fabrikak Derlan markako motoak ekoiztu zituen. Oinarrizko teknologiarekin eta jakintza justuarekin, garaian zaila zen negozio batean ausartu ziren bertako jabeak eta langileak. Isil samar pasatu den historia berreskuratzeko ahaleginean ari da Iker Itxaso zarauztarra. Oraingoz, erakusketa batekin.

Motorzale amorratua da eta zarauztarra. Baina, askotan gertatzen den bezala, Iker Itxasok ez zuen ezagutzen bere herriko historiaren parte bat, motoei estu lotutakoa. «Kasualitatez jakin nuen, Interneteko iragarki baten bidez, Zarautzen moto fabrika bat egon zela. Basor fabrikak Derlan markako motoak egin zituen

2017ko uztailaren 2an, Salberdingo eraikin zaharra bota bezperan, Basor fabrika zegoen tokian bildu ziren bertan lanean aritutakoak. Irudian, langileak, konpondutako Derlan moto bati begira. Imanol SORAZU

1954 eta 1962 urte bitartean». Jakin-minez hasi zen hari horri tiraka, ingurukoei galdetuz. «Inguruan galdezka hasi nintzen eta inork ez zekien ezer, nire amonak izan ezik. Hark kontatu zidan Basor fabrikaren sortzaileak bere auzokoak zirela, Sorazu anaiak eta haien koinatu Bastarrika. Eta Salberdingo fabrika zaharrean jarri zutela martxan motoak ekoizteko lantegia». Fabrikaren izena, hain justu, jabeen abizenen baturatik etorri zen: Bastarrika eta Sorazu. Eta moto markaren izena hasiera batean Ederlan omen zen, lan ederretik hartua. Gero, baina, hasierako “E” hori galdu eta Derlan izenarekin geratu zen.

Informazio bilaketan sartu zen buru-belarri Itxaso, baina Internet ez zitzaion oso lagungarri gertatu. «Garai hartako informaziorik apenas dagoen sarean. Liburuetan eta aldizkarietan zeozer, baina ez askorik. Fabrikan lanean aritu-

tako zenbaitekin harremanetan jarri eta horietako batek esan zidan nire aitonak Basor fabrikarentzat ere lan egiten zuela. Tailer txiki bat zuen aitonak eta Derlan motoen gurpilak eramaten zizkion eta berak erradioak jartzen zizkien. Hori jakin nuenean are gehiago piztu zen nire interesa. Orduan nire helburua Derlan moto bat lortzea zen».

Horretan ari zela, bidean topatu zuen Juan Mari Uriarte Donostiako mekanikaria, gerora abentura honetan bidaide garrantzitsu bihurtu dena. «Juan Marik liburuak eta aldizkariak erakutsi zizkidan, datak kokatu... hiru astera Extremaduran Derlan moto bat saltzen zutela jakin nuen eta berari aipatu nion. Nirekin etortzea nahi nuen, baina ez nintzen ausartzen, 71 urte ditu eta. Berak segituan esan zidan nirekin etorriko zela. Motoaren bila joan ginen, ekarri genuen eta buru-belarri jarri ginen biok motoa konpontzen. Dena desmuntatu genuen eta, kostata, baina martxan jartzea lortu genuen».

Bitartean, Derlan motoen historiaren hari mataza mamitzen zihoan. «Herrian Basor fabrikaren historian arakatzan ari nintzela jakin zen, eta jendea gerturatzen zitzaidan hau eta beste kontatzera. Horrela jakin nuen fabrika zegoen pabiloia –Salberdinen, gaztetxearen parean– zutik zegoela oraindik, baina denbora gutxirako, bota egin behar zutelako. Orduan pentsatu nuen polita izango zela bota aurretik langileekin bertan biltzea eta argazki batzuk ateratzea. Horrela egin genuen 2017ko uztailaren 2an».

Basor fabrika 20 bat langile izatera iritsi zen eta Itxasok hamahiru inguru ditu lokalizatuak. «Fabrikaren kanpoaldean elkartu ginen, argazki batzuk atera genituen eta zeozer jan genuen han bertan. Orduan sorpresa bat genduela esan nien, pabiloiko atea zabaldu eta Juan Marik eta biok konpondutako Derlan motoa zegoen bertan. Oso-oso une polita izan zen». Hurrengo egunean bertan bota zuten fabrika.



Derlan moto bat lortuta eta langileak elkartu eta argazkiak aterata. Pausoz pauso, bidetxoa egiten ari zen Iker Itxaso. «Horraino iritsita, aurrera segitzeko gogo piztu zitzaidan, zerbait gehiago egiteko grina. Ingurukoak dokumentalaren aukera aipatzen hasi ziren... bitartean moto gehiago eskuratzen hasi nintzen, Zarauzko Udalaren laguntza txiki bat lortu nuen, Aldundiaren beste laguntza txiki bat... Orduan erabaki nuen erakusketa eta dokumentala martxan jartzea».

Erakusketa Zarauzko Sanz-Enea kultur etxean izango da azaroaren 4ra arte eta aurrera begira beste herri batzuetara mugitzeko aukera ere badago. Dokumentala, berriz, martxan dago. «Puzlea osatzen ari naiz pixkanaka. Bi urteko lana dago hemen, erakusketan. Basor fabrikaren historia jasotzen du, non zegoen, nork lan egin zuen bertan, nola lan egiten zuten, motoen zehaztasun teknikoak... Dokumentalaren helburua, berriz, langileen bizipenak jasotzea da, garaiko Zarauzko kontuak...».

TEKNOLOGIA OSO OINARRIZKOA

Basor fabrikak, esan bezala, ehunka moto ekoiztu zituen 1954-1962 urte bitartean. «Alemaniako Sach moto bat ekarri zuten eta hari begira hasi ziren lanean. Orain bezala, orduan ere asko kopiatzen zen. Teknologia oso oinarrizkoarekin hasi ziren, planoak eskuz eginez. Sorazu anaietako batek egiten zituen planoak eta benetan ikusgarria da nolako zehaztasunez marrazten zituen. Zaragozako museo batean topatu genituen planoak. Erakusketan badaude ikusgai».

Garai hartan motorren negozioa ez zen erraza. «Langileek kontatzen dute ia inork ez zekiela ezer motorrei buruz, baina dena egitera ausartzen zirela. Igual hoge langile haietatik bik zekiten zerbait motorren funtzionamenduaz, baina katean lan eginez lortzen zuten aurrera egitea».

Itxasoren ustez, Derlan motoen akatsa akaso modelo gehiegi egitea izan zen. «Zortzi urtean gutxienez bederatzi moto modelo egin zituzten, eta gero modelo horietako bakoitzak aldaera



50eko hamarkadan Zarautzen bizikleta lasterketa bat egiten omen zen herrian barna. Lasterketa Derlan motoek zabaltzen zuten, goiko irudian ikus daitekeenez. Alboko orrialdean, Iker Itxaso eta Juan Mari Uriarte, elkarrekin konpontzen aritu diren motoekin. SORAZU FAMILIA eta IKER ITXASO

desberdinak zituen. Guztira hamalau hamabost modelo. Guk desmuntatu ditugun motoetan denak dira desberdinak. Akaso, hori izan zen bere akatsa. Beste moto etxe batzuek modelo bat egin eta hura ekoizten urteak ematen zituzten».

Ez daki zehatz zenbat Derlan moto ekoitzi ziren fabrika martxan egon zen bitartean. «Langileek esaten dute egunean moto bat osatzen zutela. Ezin izan dugu zehatz jakin zenbat moto saldu zituzten, baina badakigu gehienak Zarautzik kanpo saldu zirela. Langileek kontatzen dute ostiraletan kamioi bat ateratzen zela fabrikatik eta Estatu osoan banatzen zituela motoak».

Derlan moto bat 16.000 pezeta inguru kostatzen omen zen eta Basor fabrikako langileek 200 bat pezeta irabazten zituzten astean. Beraz, Derlan moto bat erostea ez zegoen edonoren esku. «Lortu ditudan motoetatik bakarra da Zarauzkoa, hemen erakusketan dagoena. Fraka Ardoak ardoteagiko motoa da, ardoa banatzeko erabiltzen zutena, atzean orga bat jarrita. Gainontzeko moto guztiak Estatu espainolean berreskuratu ditugu; Valentzia, Asturias, Leon... Hamai-ka moto daude erakusketan. Guk konpondu eta martxan jarri ditugunak sei dira eta gainontzekoak utzi egin dizkigute erakusketarako».

Berreskuratu dituzten motoen artean bakarra da Zarauzkoa, garai bateko Fraka Ardoak ardoteagiko motoa, herrian ardoa banatzeko erabiltzen zutena. Motoak orga eder bat dauka atzean eta ikusgarria da nolako konponketa egin duten


Derlan motoen inguruko erakusketa Zarauzko Sanz-Enean izango da azaroaren 4ra bitartean. Gero beste herri batzuetara eramatea espero dute. Horrez gain, dokumental bat ere prestatzen ari dira

ĒKINTZAILETZA ADIBIDE BAT

Iker Itxasoren ustez, Basor fabrikako langileek meritu handia zuten, mekanikaz ezer gutxi jakinda motoak egiteko abenturan sartu zirelako. «Ekintzailetza adibide garbia da. Garai hartan lantegiko arduraduna zen Santi Osak –egun 92 urte ditu eta Zumaian bizi da– kontatzen du denerako gai sentitzen zirela. Jakin omen zuten Tolosako baserri batean diesel motorra zuen traktore bat ekarri zutela. Traktorea egun baterako eskatu, Basor fabrikara ekarri, motorra desmuntatu, nolakoa zen ikusi, berriz muntatu eta bueltatu omen zuten. Die-

sel motor bat egitera ausartu ziren eta itsasoan probatu zuten, itsasontzi batekin. Lehertu egin omen zen motorra», kontatu du Itxasok. «Horregatik, sekulako meritua zutelako, hau guztia berariei egindako omenaldi bat da». Gero- ra, Derlan motoen ekoizpena alboan utzita, itsasontzientzako enbrageak egiten segitu zuen Basor fabrikak.

Iker Itxasok bildu duen eta erakusketan nabarmendu duen datua ere esanguratsua da: 1940-1970 urte bitartean berrogei moto ekoizle baino gehiago zeuden Euskal Herrian; horietako batzuk oraindik martxan daude.





Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

«Mannequin challenge»

Ez naiz ari orain hiruzpau urte modan egon ziren bideo horiez. Bati baino gehiagori tokatu zitzaigun arren horietan parte hartzea eta kamerari begiratu gabe geldi-geldi egotea (gogora beza bakoitzak bere anekdota). Sare sozialetako joan-etorri azkarreko apar uneak gorabehera, *mannequin challenge* terminoa berreskuratu eta birbataiatu daitekeelakoan nago. Manikien lehiaketa.

Harritu egin nintzen aurrekoan, goizean goiz lanera sartu aurretik ebaki bat eta tortilla pintxo bat hartzen nuen bitartean (to originaltasuna), ikustean berrietan zeri eman zioten izugarritzko garrantzia. Andaluzian hauteskunde autonomikoak egongo omen dira. Ez zitzaidan iruditu Estatu-ko kate sentsazionalista bateko albistegia goizeko lehen orduan irekitzeko bestekoa. Edo, agian, hori pentsatu nuen manikien lehiaketa delakoarekin bueltaka nembilelako.

Badirudi Italian eta Espainian telebista kateen jabe denari eta bere aliatuei, hauteskunde prozesuak etengabe presente egotea interesatzen zaiela. Iluntzean telebista piztu nuen. Intrigaz. Eta bai, hor ari ziren, delako edo nolako aurkeztuko dela Andaluziako presidentegai izateko, hau edo beste alderditik. Litxarrerria denda batean bezala sentitu nintzen. Gominola gorriak, beltzak, urdinak... edo guztietatik gutxi batzuk. Berdin zait, total, autobusa itxaroten dudan bitartean jateko dira. Laurogeita bi zentimo? Bai, tori, hementxe.

Labur iraun du politikaz hizki larriz arituko ginela zirudien garaia: bake prozesua; Bilduren iritsiera udaletxeetara; Erregearen abdikazioa; Podemos, kasta eta populismoa... Eta berriro maniki txapelketa interes bako batera itzuli gara. Zein maniki duzu gustuko-en? Berori jarriko dugu presidente

bestek baino *like* gehiago jasotzen baditu. Ez naiz konspirazio zalea baina badirudi maniki guztiak leku berean egin dituztela. Zaila egiten zait fisikoki ere bata bestearengandik ezberdintzea: Emmanuel Macron, Pedro Sanchez, Pablo Casado, Albert Rivera, Justin Trudeau eta Manuel Valls.

Batzuek ez dute arrakastarik izan eta zakarrontzira bota dituzte. Non daude etorkizuneko sozialdemokraziaren lider gazte haiek, David Miliband edo Mateo Renzi? Laster hasiko zaizkigu hemen ere, batzuk zein besteak, udaberriko kolekzioa aurkezten. Udaletxeetarako, batzar orokorretarako eta nafar parlamenturako hautagai askotarikoak.

Aurrekoan, Okupatu Gasteiz! eguna ospatu zen. Milaka pertsonak kultura, etxebizitza eta komunikabideak gure eguneroko interesetara lotuta gartu eta antolatu daitezkeela aldarrikatu zuten (a, bai, hori da!, *mannequin challenge* bat Hala Bedi irratan egin genuen!). Aurreko eguneko ospakizun

naren harira, alkateak, nonbait, hurbil dagoen maniki lehiaketarako hobe zela horrelako jendailarekin ez nahastea pentsatuko zuen. Edo pentsaraziko zioten, zehatzago hitz egitearren. Hobe kontserbadoreen masa erraldoi horri zuzendu eta arazo formalak argudiatu, benetan desafio ideologiko eta politiko erreal bat denari baimenak kentzeko.

Asko, jada hasi aurretik aspertuak gaude datorren «mannequin challenge» berriarekin. Baina Gasteiz-tarrantzat erreferentzia izan diren guneak bizirik daude oraindik, eta berriak sortu dira. Eta hori, gure hiria bakarrik kontuan hartuta. Barruko harbatek esaten digu baietz, lehenago edo beranduago, hasiko garela berriz politikaz hizki larriz hitz egiten. Eta albistegiak hasten direnean, arduraz baina baita poztasun hari batekin ere, belarriak tente eta begiak adi jarriko ditugula berriro. Ordura arte, denok lane-ra. Eta animo! Beharko dugu eta... •



Berriro maniki txapelketa interes bako batera itzuli gara. GAUR8

{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulier

Dogma

Humanitatearen historiako lorpenik handiena ez da giza genoma sekuentziatu izana eta horri esker guztion osasunerako orain dela gutxi arte pentsaezinak ziren tresnak garatu izana; ezta izarren konposizioari eta tenperaturari buruz

XX. mende hasieran Cecilia Paynek egindako aurkikuntza ere. Ezta, noski, Elizabeth Blackburnek telome-roei buruz egindako ikerketa eta zergatik zahartzen garen galderari ematen dion erantzuna ere. Eta Copernikok “De revolutionibus orbium coelestium” liburuan ordura arte genuen kosmobisioa aldatu izana ere tontakeria bat baino ez da. Zer esanik ez Sobietar Batasunak Sputnika espaziora bidali zueneko unea edo Ilargira iristearen unea. Horiek guztiak txiki-txiki gelditzen dira gure ibilbide historikoan. Ez, lagunok, gizakion mugarririk garrantzitsuenak, zalantzarik gabeko eta Pablo Casadoren arabera, espainiarrek bultzatu eta gauzatutako Amerikaren konkista izan zen. Barkatu, konkista esan dut? Amerikaren aurkikuntza esan nahi nuen!

Historialari bezala ez naiz sartuko Casadok bota zituen gezurrak aztertzen. Espainia Europako naziorik zaharrena dela esatea pentsamendu magikoan oinarritzen da gehiago inongo fundamentu historiografikoan baino. Paretsua da espainiarrak Ameriketara iristen lehenengoak izan zirela esatea, bikingoak dagoeneko haraino iritsi zirela dakigunean –ez aipatzearen, noski, milaka urte lehenago Beringeko itsasartetik bertara heldutako gizakiek jendeztatu zutela Amerika–. Erromanizazioa baino garrantzitsuagoa izan omen zen orain dela 500 urte baino gehiago gertatutako une historiko hura, Casadoren ustez. Eta arrazoa du; kultura, hizkuntza eta gizarte baten hilketaz ari bagara, arrazoa du gure Pablok. Agian akats tonto baten aurrean baino ez gaudete eta PPko lehendakariak ez zuen arreta gehiegirik jarri eskola garaian, jakin badakigu-eta klaseetara joatea ez dela gehien gustuko duena... Edo agian bere eskolako historia irakasleak frankismo garaiko lan-leerroa jarraitzen zuen eta Espainiako historia materia bezala eman beharrean –metodo zientifikoan oinarritzen

tutako ezagutza eremu bezala– Erregimenak hamarkadetan saldutako ustezko handitasunaren sinismena jarraitzen zuen. Edo okerrago oraindik, arazoa ez da Pablok Amerikako konkistaren inguruan historiografia modernoak esaten duena ez duela ezagutzen, baizik eta Goebbelsek bezala berak ere uste duela gezur bat mila aldiz errepikatuz egia bihurtzen dela.

Ezjakintasunean oinarritzen dira Casado bezalako pertsonak gezurrak egia bihurtzeko. Neil Degraffi behin entzun nion esaten zientziaren bilakaerak gizateriaren historia markatu duen pentsaera ez-zientifiko bat baztertuko duela. Gustatuko litzaidake hori egia dela pentsatzea, baina beldur naiz ez ote den beti sinismen edo dogmetan kokaturiko erresistentzia ez-zientifiko bat existituko.

Casadoren pentsamendu dogmatikoari erantzunez, bada egia den zerbait; sarraskia, konkista eta inposizioa alde batera utziz, orain dela bost mende Espainiak munduko esplorazioari ekin zion. Kolonek, jakin-minak bultzatuta, mundua esploratu nahi zuen eta Espainiak, helburu geopolitikoak eta ekonomikoak lortzeko, jakin-mina asetzeko tresnak eskaini zizkion.

Baina, gaur egun zein da materia horretan Espainiak utzi duen ondarea? Ezin esan dezakegu Estatu es-

Pablo Casadoren arabera, duela 500 urteko Amerikaren konkista da gizakion mugarririk. Kultura, hizkuntza eta gizarte baten hilketaz ari bada, arrazoa dauka

painiarra gai horretan liderra denik. Casadoren alderdiak ondare horri eutsi nahiko balio pentsatu beharko luke Gobernuaren egon den urteetan bere herriaren garapen zientifikoa bultzatzen zertan lagundu duen. Lagundu baino hezkuntzan eta ikerketan egin zituzten murritzaketek emandako aurrerapauso txikiak zapuztu zituztela esan dezakegu. Etorkizunerantz bultzatzen gaituen indarra jakin-mina da eta zientziak hori eskaintzen digu. Baina jakin badakigu Casadok eta bere alderdiak ez dutela gehiegi aurrera begiratzen eta atzera begiratzen dutenean ere ikuspuntu zientifikoa alde batera uzten dutela. •



Zentzumenen bidaia azaldu zuen Juan Carlos Arbolea Biokimikako doktoreak Basque Culinary Centerreko (BCC) bertze bi irakaslerekin batera San Sebastian Gastronomikan eman zuen konferentzian, joan den astean. «Sukaldariek beti izan dute misio bera: beren janaria jaten dutenen zentzumenetara ailegatzea, plazera ematea. Horretan antza dute orain dela mende batzuetako sukaldariek eta oraingoek, gauza bera bilatzen dute: estimuluak eta sentsazioak sortzea».

Arbolearen ustez, azken 20 urteetako aldaketa, sukaldariek kanpoan ere beste ezagutza mota batzuk bilatzea izan da, horien artean jakintza zientifikoa. Soziologikoa ere bai, psikologikoa... Hori dena, eskaini nahi duten zentzumenen bidaia hori topatzeko.

Elikagaien zientzialari gisa definitzen duzu zure burua. Zer da hori?

Kimikan lizentziatu ondotik elikaduraren alorrean egin nuen doktore tesia, zehazki kimika fisikoa. Ingalaterrako zentro batera joan nintzen. Bertan janariarekin soilik egin zen lan. Egon nintzen sailean testurak lantzen ziren,

JUAN CARLOS ARBOLEYA

ELIKAGAIEN ZIENTZIALARIA

Gijonen jaiotako biokimikaria bete-betean sartua dago zientziaren eta sukaldaritzaren arteko interakzioan, zentzumenen bidaia kitzikagarrian.

Maider Iantzi Goienetxe

«Etorkizunean egon daitekeen janari eskasiaren aurrean, sukaldariak botere eta ardura handia du»

nola eman testura desberdinak elikagaiei. Tesia esne-gain harrotuari buruz egin nuela esaten dudanean irri egiten dit jende guztiak. Hor zein osagai dauden eta zein funtzio duten ulertzen saiatzea da kontua, zenbat apar sor dezaket, emultsio bati zer egonkortasun ematen ahal dioten, zer biskositate... Propietate sentsorialekin lotuta dago hori guztia. Elikagaiaren arkitektura ikasten dugu lehenik, eta, gero, zein eragin duen ahoan.

Zaporeak nola funtzionatzen ulertzen saiatzen zara.

Zaporearen aurretik, elikagaiak zein arkitektura duten aztertzen dugu. Izozki bat izugarri konplexua da. Emultsio bat duzu, apar bat, ur kristalezko zati bat... Ogia ere oso konplexua da. Aparra duzu, glutena sare gelifikatuekin... Ahoan sartu baino lehen zertaz egingo dagoen eta nola jokatzen duen jakin behar da. Behin ahoan, zentzumenen analisisa hasten da. Eta ez gara hor gelditzen: ahoan sartzen dugu, zentzumen-erzeptoretara ailegatzen da, baina zer gertatzen da garunak interpretatzen duenean? Zaporea ez dago ahoan, buruan baizik. Orain dela urte batzuk *workshop* bat egin genuen BCCn neurozientzia eta gastronomiari buruz. Mundu osoko neurozientzialari ugari ekarri genituen. AEBetako Columbia-ko Unibertsitatetik etorri zen batek arratoiekin egindako lan bat erakutsi zigun. Garuneko parte zehatz batzuk estimulatu zirela zerbaiti zapore samina hartzea lortzen zuten, elikagai saminik eman gabe.

Zientzia hori berria da, ezta?

Oso berria. Oso ondo dago ahoan edo zentzumen-erre-

zeptore desberdinetan parte sentsoriala aztertzea, baina garunak nola interpretatuko duen da garrantzitsua. Badago zerbait fisikoa, arratoiaren ikerketan bezala. Baina askoz konplexuagoa da. Zure bizipenekin lotua dago, zure intelektorekin, psikearekin.

Usaimenak batez ere haurtzarora eramaten gaitu.

Duela urte batzuk lan batzuetan kolaboratu genuen. Lurriak askatzen genituen modu kontrolatuan, usaimena ikargarri boteretsua dela jakinda. Zeinek ez du usain gozori bere garunean gordea? Emozio batera eramaten zaitu, bereziki haurra zinen garaia. Adibidez, amonaren zopa baserrian.

Zergatik gertatzen da hori?

Usaimenaren memoria garunaren oso barruan gordetzen da, memoria autobiografikoa gordetzen den leku berean. Memoria autobiografikoa markatzen zaituzten bizipenak osatzen dute, batez ere txikitakoek. Normalki emozio bat sortzen dizute. Orduan, toki berean gordetzeak emozioak bilduta dituzun usainekin nahastea ekartzen du. Sukaldaritzaren munduarentzat oso interesgarria da hori kudeatu ahal izatea. Baina BCCn ez dugu horretan bakarrik gelditu nahi; bide bat da, adibidez, osasunean aplikatzeko. Batez ere garuna ulertzen saiatzeko.

BCCn koordinatzen duzun Zientzia Gastronomikoen Masterrean zer da erakusten duzuen funtsezko gauza?

Garrantzitsuena gai ezberdinen integrazioa da, ikuspegi orokorra. Sukaldaritzan metodo zientifikoa aplikatzen ahalgintzen gara, sorkuntzetarako. Ez dira zientzia ikasi nahi

”

duten sukaldariak soilik etortzen; kontrakoa ere gertatzen da. Karrera zientifikoak ikasi eta gastronomiara hurbildu nahi dutenak etortzen dira. Negozio ereduak ere aztertzen ditugu. Produktu on bat izan dezakezu, baina saltzen ez badakizu ez duzu deus lortzen. Soziologiaren eremuan ere sartzen gara, eta psikologian. Garrantzitsuak direla uste dugun gaiak jorratzen ditugu, gastronomiaren kontzeptu zabala deskribatzen dutenak. Guretzat, funtsezkoa ez da espezializazioa, baizik eta ikuspegi orokorra.

Bilboko Azti Tecnalien lan egina zara. Zertan zehazki?

Hamalau urtez ibili nintzen bertan, 2004an hasita. Elikadura industriarako lan asko egiten genuen, Estatuko zein Europako proiektuetan. Esate baterako, maionesa batean koipea nola gutxitu ikertzen genuen, maionesa tradizionalaren propietate sensorialak galdu gabe. Han hasi eta urtebete geroago Mugaritz jatetxearekin lanean hasi ginen, burbuilen inguruan adibidez. Elkarlan interesgarria egin genuen. Baina beti izan dut irakasteko bokazioa. Eta zientziaren eta sukaldaritzaren arteko interakzio hau izugarri kitzikagarria iruditzen zait. Pasio handia dago barruan. Orain dela hiru urte honetan betebete sartzeari erabaki nuen.

Nola uste duzu janen dugula 2050ean?

Orain dela hilabete batzuk adituekin saio bat egin genuen BCCren ekimenez Londresen, 2050eko janariari buruz. Nik uste nola jango dugun jakiteko mundua nolakoa izango den pentsatu behar dugula. Superpopulazioaz mintzatu

«Usainak eta memoria autobiografikoa garunaren toki berean gordetzeak emozioak, bereziki umetakoak, usainekin nahastea eragiten du. Hori oso interesgarria da sukaldarako»

ginen, megahiriez. Elikadura luxua izango da. Jasangarritasunean adituak garrantzitsuak izango dira. Populazioa nahiko zahartua egongo da. Robotak izango ditugu, teknologia pila eta horrek elikagaietan eragingo du. Horretan guztian oinarrituta, kontsumituko ditugun elikagaiak jasangarriak izan beharko dute nahi eta nahi ez. Gainera, proteina iturriak aldatu beharko dira. Oraingo haragi kontsumoa arazo bat izango da eta segur aski ez da posible izango. Beste proteina mota batzuk bilatu beharko dira. Zentzu horretan, teknologia asko egongo da pertsona bakoitzak zer jaten ahalko duen, galdera horri lotuta. Bes-

talde, eta hau desio bat da aurreikuspen bat baino gehiago, ez nuke pertsonen beren sustraiak galtzea nahi. Gastronomiaren bidez dezente finkatzen ahal dira sustrai horiek.

Etxean kozinatzen jarraituko dugu edo robotek egingen dute gure orde?

Oxala etxean kozinatzen jarraitzea! Aurreikuspen bat baino, behar bat dela uste dut. Jendeak etxean kozinatu dezan lortu behar dugu, hori produktua kontrolatzea baita. BCCn badira lan ildo batzuk txikitatik kozinatuz produktuen kontzientzia hartzeko. Horrek osasuntsuago jatea ere ekartzen du. Hortaz, ez litzate-

ke ona izango sukaldaria robot batek ordezkatzeari. Gaur egun ere gehiago kozinatu beharko genuke, gehiago busti. Ona da umeek txikitatik eskuak kozinatzen ari den horretan sartzeari, ohitura osasungarriak sortzen dituelako, baina ez hori bakarrik; kultura sortzen du, herria sortzen du. Gauza asko sortzen ditu.

Etorkizuneko sukaldaria, eta gaurkoa, sortzailea ere bada, eragile soziala, eta diziplina aunitz batzen ditu, ingurugiroa eta hezkuntza kasu.

Erabat sinesten dut hori. Jada gertatzen ari da eta oraindik gehiago gertatu beharko litzatekeela uste dut. Joan den astean Ekuadorren egon nintzen, Nazio Batuen proiektuetan buru-belarri ari diren sukaldariekin. Amazonaseko oihane-tako eta Ekuadorreko beste gu- ne batzuetako komunitate zehatzekin ari dira lanean. Desnutrizio arazoak dituzte eta sukaldaritzaren bidez bizi- modu hobea izan dezaten saiatzen dira. Hobeki elikatze- ko jantokiak sortzen dituzte eta dituzten produktuak gehiago balora ditzaten ere ahalegintzen dira. Beren bu- ruarengan eta inguruan dute- nean sinesten laguntzen diete. Kakaoa dute, adibidez. Hori sukaldarien mugimenduekin egiten ari dira. Dituzten pro- duktu zehatzetan interesa du- ten sukaldariekin. Hauek ezin dute beste aldera begiratu errealitate horren aurrean. Su- kaldariak botere mediatiko handia du. Kasu gehiago egin- go diote nik zientzialari gisa esaten badut baino. Etorkizu- nean egon daitekeen janari es- kasiaren eta aldaketaren au- rrean paper oso garrantzitsua dute. Botere eta ardura handia. Ez genuke hori ahortzi behar.



Argazkiak: Andoni CANELLADA | FOKU

GERRA-HOTSAREN ORDEZ...

Rajovan amaitu da musika maite duen herri kurduari instrumentuak eramateko bidaia

Iritsi dira. Biolin, piano zein laute doinuz iritsi da elkartasuna Mende-baldeko Kurdistanera, Rojavara, hain zuzen. Gani Mirzo musikari kurduak joan den abuztuan handik itzuli berritan GAUR8ri iragarri zion bezala, bere sorterrian utzi du Mugarik Gabeko Musikarien izenean eramandako tona bat musika-tresna. Oso prozesu luze eta arazoz bete-
tea izan da, baina lortu dute.

GAUR8k Mugarik Gabeko Musikariak elkarteko presidente Jesus Mari Alegria *Pinttu*-rekin hitz egin zuen joan den urtarrilean, Gasteizen instrumentu bilketa hasi zenean, eta harreman hari eutsita, bilketa amaitutakoan bidaia atzeratu zela esan zigun, Turkiako Armadaren bonbardaketak zirela eta. Uda honetan, bidaia gorabeheratsu bezain luze baten ondoren, Rojavan izan zen Gani Mirzo eta musika-tresnak handik gertu, «leku seguruan», gordeta utzi zituen. Lan kontuak zirela-eta, Bartzelonara itzuli zen, bertan bizi baita, eta berarekin hitz egiteko aukera izan genuen. Irail amaieran Rojavara itzultzekoa zela esan zigun orduan, eta asteon izan dugu atzera haren berri.

Asteartean amaitu zuen musikari kurduak duela bi urte pentsatu eta aurtun Mugarik Gabeko Musikarien eskutik gauzatu duen proiektua. Edo proiektuaren lehen parte, Pinttuk dioenez, bigarren bidaia bat egiteko asmoa baitute, besteak beste orkestra bat egiteko falta diren instrumentuak eta txistuak ere eramateko. «Askok ez zuten sinisten gurea bezalako herri txiki bat musika-tresna tona bat bidaltzeko gai izango zenik», dio

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Mugarik Gabeko Musikariak erakundeak eta Euskal Herriko musika eskolek Siria aldeko Kurdistanera bidalitako instrumentu tona Rojavako haur eta behartsuen eskuetara iritsi da. Asteon itzultzekoa zen Gani Mirzo musikari kurdua bere sorterritik, bidaia luze eta gorabeheratsu bat elkartasun sinfonia bihurtuta.



Gani Mirzok Rojavako zenbait lekutan banatu berri ditu Euskal Herritik eramandako musika-tresnak.
Gani MIRZO



pozarren, «baina instrumen-
tuak han daude, behar dituzte-
nen eskuetan. Euskaldun hi-
tza. Hemen promesak baino
zerbait gehiago dago». Euskal
elkartasuna nabarmen gera
dadin nahi du Pinttuk, jendea-
ren elkartasuna, eta kexu ageri
da instituzioen uzurtasunaz,
hitz gehiegi baina gauza gutxi
egiten dutelakoan. «Umeek,
zergatik hiltzen dituzten ez
dakitenean, munduaren parte
batek erreakzionatzea nahi du-
te, horregatik honek bizia
ematen die, haientzako itxaro-
pen argi bat piztea bezala da».

Pinttuk udan aurreratu zue-
nez, Gasteiztik Kurdistanera-
noko bidaia osoa jasoko duen
film bat egiten ari dira. Jende
profesionala interesatuta ze-
goela dio, eta dagoeneko buka-
tzen ari direla. Euren asmo na-
gusia, lehenik, kanpaina eta
bidaia egin ahal izateko lagun-
tza eman duen jendeak filma
ikustea da, alegia, instrumen-
tuak nola eramán dituzten eta
hango umeen eskutan nola
dauden ikustea. Horixe da eu-
rentzat benetako arrakasta,
ekimenak izango duen «erren-
tagarritasun humanista». On-
doren, filma Donostian eta na-
zioarteko beste jaialdi
batzuetan aurkezteko asmoa
dute.

Ekimen hau Euskal Herritik
kanpo ere ez da oharkabean
gertatu. Urrunera gabe, joan
den larunbatean “Clarín” Ar-
gentinako egunkariak Muga-
rik Gabeko Musikariak elkar-
teak «Euskadiko herriarekin
batera» antolatutako kanpaina
eta bidaiaren berri ematen
duen erreportaje bat argitara-
tu zuen. «Honek aurrera ja-
rraitzeko indarra emango di-
gu», dio Pinttuk, besteak beste
musika-tresna bankuak jarrai-
tu egingo baitu.



GAUR8 ireki gure leihoa



> #IñigoCabacasJustizia: ezinbesteko haria



Luis JAUREGIALTZO | FOKU

Astehenean hasi zen Iñigo Cabacasen heriotzagatik akusatuen aulkian eseriko diren sei ertzainen aurkako epaiketa. Elkartasuna Bizkaiko Auzitegi-ko ateraino ez ezik, sareetara ere iritsi zen, bi kasuetan bilbo-



tar gaztearen familia babeste-ko asmoz. Jonathan Martine-
zek, berriz, gertaerak kokatu
eta Ertzaintzaren oldarra nola
gertatu zen gogorarazteko era-
bili du Twitter, ezinbesteko ha-
ri batekin.

Epaiketa hasi baino zenbait ordu lehenago, gaztearen seni-
de eta lagunak, tartean haren
gurasoak, Bilboko Justizia Jau-
regiaren aurrean elkarretaratu
ziren justizia eskatzeko. Eskae-
ra bera islatu zen sare soziale-
tan, eta bertan ere jende askok
eskaini zion bere babesba Caba-
cas familiari.

Jonathan Martinezek Twitte-
rreko hari batean gogora ekar-
tzen du PSE Arabako, Bizkaiko
eta Gipuzkoako Gobernura iri-
tsi zela: «Baliogabetzat jotako
ehun mila botok ahalbide zu-
ten lehen aldiz PSOE, PP eta
UPyDk parlamentuko gehien-
goa izatea». Halaber, Rodolfo
Ares Barne sailburuak ezarri
zuen «erradikalen aurkako po-
litika gogorra» ere gogoraraz-
ten du, eta GARA eta Iñigo Ca-
bacasen familiaren abokatua
ertzainak baino lehenago eseri
zirela akusatuen aulkian.

Hariak oihartzun handia izan
du, 5.000 aldiz bertxiotuta.

Horrela amaitzen da Marti-
nezen haria: «Hauxe da Iñigo
Cabacasen historia. Ezagu-
tzen ez bazenuen, galdeiozu
zeure buruari zergatik».



> Ekai eta LGTBIQ kolektiboa gogoan

Pasa den otsailean bere bu-
ruaz beste egin zuen gazte
transexual ondarroarrari eta
LGTBIQ kolektibo osoari ome-
naldia egin berri diete Onda-
rroan, gazteak 17 urte beteko
zituen egunean.
Ekai Lersundi hormona tra-
tamendua noiz hasi zain zego-
en. Chrysallis elkarteak orduan
adierazi zuenez, «borroka



gehiagiri aurre egin beharre-
an» zen, bere identitatearen
arabera bizi ahal izateko. Ome-
naldian monolito bat ipini zu-
ten, eta transexualitatea gaixo-
tasun gisa ez hartzeko galdegin
zuten, beste behin ere.
Ekaiaren amak Facebooken
partekatu du monolitoaren iru-
dia, parte hartzaileei eskerrak
ematen dien mezu batekin.



> Futbola, «Hispanitatea bestela ospatzeko aitzakia»

La Sexta telebista kateak ez ditu gustuko, nonbait, joan den astean Euskal Selekzioaren eta Venezuelaren arteko partidak utzitako irudiak. Espainiako kate horretako albistegi aurkezle batek esan zuenaren arabera, futbol partidu hori «mezu politikoak plazaratu, presoak etxeratze bantzerak eta esteladak erakutsi eta Venezuelaren aldeko mezu politikoak agertzeko aitzakia» izan zen.



«Jai ederra antolatu zen atzo Mendizorrotzako harmailetan», hasi zen La Sextako aurkezlea, eta ez zuen arrazoi falta; izan ere, bertako giroa ikusgarria izan zen. Harmailetan entzun eta ikusten ziren mezuen artean, Hugo Chavez Venezuelako presidente ohia- ren begiak ere agertu ziren. Aurkezleak berak esan zuen: «Hispanitatearen Eguna ospatzeko beste modu bat» izan zen.

> Harrera goxoa migratzaileentzat Oñatin

Oñatin dagoen errefuxiatu eta asilo eskatzaileen aterpetxeak igandean zabaltu zituen atearak eta 37 migratzailek hartu zuten aterpe lehen gauean. Berrehun bat herritar bildu ziren iluntzean Saharaz hegoaldeko lagunei harrera egiteko eta migratzaileek, esker onez, Mikel Laboaren «Txoria txori» abestu zuten. Euskal Herriko beste zenbait txokotan, baina, ez dute horren harrera goxoa jasotzen. Migratzaileek bizi duten egoera gizarteratzeko asmoz egin-



dako kanpamentua hustu egin zuten Bilbon. Astelehenean agerraldia egin zuen Bilboko Harrera Auzoak ekimenak Udalaren jarrera salatu eta aurrerantzean egin beharreko ekimenak salatzeke. Irunen ere migratzaile dezentek kale gorrian egon behar izan zuten asteburuan. Hala ere, haiekin egon dira Irungo Harrera Sareko boluntarioak, migratzaileentzat harrera duin eta integrala galdegiten dutenak.



> Agur beroa sarean Delorean taldeari

Hemezortzi urteko ibilbidearen ostean, banatu eta agur esan du Delorean taldeak. Zortzi diskotan bildu duen ibilbidea ixteko ordua dela erabaki du aho batez eta bira bat egingo dute, agurtzeko. Sare sozialen bidez jakinarazi du musika talde zarauzta- rrak ez duela jarraituko. Insta- gram kontuan idatzitako



mezu zabal batean azaldu dute erabakia, «arteak eta musika benetan direnari leial izanik, deseaten duguna eginaz eta egiten duguna deseatur» agur esaten dutela diote. Jarraitzaileei eskerrak eman dizkiete eta haiek ere esker onez taldea agurtzeko baliatu dituzte sareak, askok taldearen abesti gogokoena gogoratuz.



Eduardo Alsasua, margolari gasteiztarra, ARTgia gunean. Endika PORTILLO | FOKU

infraganti

EDUARDO ALSASUA

Egun hauetan Eduardo Alsasuaren margolan errealistak ikus daitezke Irantzu Lekuek sortutako ARTgia Sorgune Aretoan. Gasteizen banako erakusketa burutzen duen lehenengo aldia da, eta bere lana Judimendiko auzokideei erakusteko aukera eman dio horrek. Datorren urtean beste erakusketa bat antolatuko du Espazioa aretoan.

Margolan batzuetan zaila da margolariak esan nahi duena antzematea. Askotan badirudi arte abstraktua ikusle gutxi batzuei zuzen-

duta dagoela, begirada kritiko edo berezia ezinbestekoa dela koadroan agertzen dena ulertzeko. Errealismoarekin ez da hori gertatzen. Errealismoan ez dago interpretaziorik, ez asko behintzat, eta edonork uler dezake margolanetan ikusten duena. Edonork azal ditzake

har zuela baina, bere hitzetan, Arabako hiriburuan ez da erraza margolan erakusketa bat antolatzea. «Oihaneder jauregian bertako artea sustatzeko laguntzak daude, baina ez dira nahikoak. Hiriko gune publikoak nahiko hermetikoak dira», kritikatu du, diru kontua dela nabarmenduta. «Guneak existitzen dira, guneak badaude, baina ez dago dirurik erakusketak antolatzeko, hori da diotena», gaineratu du.

Eta egoera horri aurre egiteko sortu berri diren ekimen pribatuak goraipatu ditu. «Gasteizen artean lan egiten duen jendea badago, eta hori ez da ikusten. Horregatik garrantzitsuak dira Irantzu Lekuek sortutako ARTgia bezalako aretoak, azken urteetan aurrera eramán diren ekimen pribatuak. Eta oso zaila da gune bat mantentzea, eta are gehiago gune hori erabiltzea beste artisten lanak erakusteko. Zoriontzeko lana egiten dute», esan du bokazioa umea zela topatu zuen artistak.

TXIKIA ZENETIK

Gogoratzen duenez, bere aitari gustatzen zitzaion margotzea, eta 14 urte zituenean sartu zen Gasteizko Arte Eskolan. Gero batxiler artistikoa egin zuen eta ondoren Arte Ederren Fakultatean matrikulatu zen. Ikasketak 2007. urtean amaitu zituen eta ordutik ez du atsedetik hartu. Banako erakusketak egin ditu Urretxun, Basaurin, Dulantzín, Ondarroan, Ortuellan eta Erriberrin, eta hainbat talde-erakusketatan ere hartu du parte. Euskal Herrian eta espainiar Estatuan antolatzen diren lehiaketetan sariak ere jaso izan ditu. Beti bere lan errealista erakutsiz.

Antonio Lopez pintore ospetsuaren katalogoak etxean edukitzea erabakigarria izan

ARTgia Sorgune Aretoan egun hauetan ikusgai dauden koadroak, Eduardo Alsasua pintore gasteiztarrarenak.

Erakusketak “Paseoa auzoan zehar” du izena eta oso berezia da berarentzat. Izan ere, banako erakusketa bat egin duen lehenengo aldia da, eta bere estudiotik gertu gainera, Judimendi auzoan, «horregatik darama izen hori». «Nire auzokideei irekiko natzaie erakusketa honi esker. Batzuek ez dakite margolaria naizenik eta dakitenen artean askok ez dituzte nire koadroak ikusi. Ez dakite nolakoa den nire lana», azpimarratu du, erakusketak harrera ona izan duela gehituta. «Inaugurazioa bikaina izan zen, aretoa beteta zegoen».

Bere senide eta lagunek askotan esan diote Gasteizen banako erakusketa bat egin be-



Bakarkako erakusketa bat egiten duen lehen aldia da. «Paseoa auzoan zehar» izena du eta koadroak prozesu luzeen ondorio dira.

Endika PORTILLO | FOKU

zen bere estiloa zehazteko, alegia, errealismoa hautatzeko. Berak, beste margolari errealistek bezala, egiten dituen koadroak errealistak izateko premia dauka, «mundu erreala edo mundu bisuala» erakutsi nahi duelako; eta hori ez da erraza izaten. Margotzen dituen koadroak prozesu luzeen ondorio dira, eta argazkien kopia dirudite. Zazpi hilabete behar izan zituen, esaterako, erakusketan ikusi ahal den koadro handiena pintatzeko, eta egunero bost ordu baino gehiago igarotzen ditu bere tailerrean, pintatzen.

Alsasuak zortea dauka. Bere bizitza arteari lotuta dago. Ez du beste leku batean lan egin beharrik eguneroko gastuei aurre egiteko. Dena den, aitor-tu duenez, margolari baten lana ez da estudioan amaitzen.

«Enkarguak egin behar ditut eta adi egoten naiz lehiaketetan parte hartzeko. Dosierrak egin behar dira, datak kontuan hartu... esan dezaket margolanei esker bizi-rik irautea lortzen dudala», dio ironiaz, lehen klaseak ematen zituela gaineratuz.

Etorkizunari begira, Alsasuak beste erakusketa bat dauka buruan. Berririo Gasteizen. Jose Cosek sortutako Espazioa aretoan egingo du, baina oraindik ez du data zehaztu. Dioenez, erakusketa martxoan irekitzea espero zuen, baina

Erakusketak «Paseoa auzoan zehar» du izena eta oso berezia da beretzat. Izan ere, bakarkako erakusketa burutzen duen lehenengo aldia da, eta bere estudiotik gertu gainera, Judimendin

Etorkizunari begira, Eduardo Alsasuak beste erakusketa bat dauka buruan. Berririo Gasteizen. Jose Cosek sortutako Espazioa aretoan egingo du, baina oraindik ez du data zehaztu

ARTgia gunean dagoen erakusketaren arrakasta ikusi ondoren nahiago du pixka bat itxaron. «Nire ustez, ez dauka zentzurik koadro berberak era-

k u s t e a k . Nahiago dut beste erakusketa atzeratu margolan berriak erakusteko. Jendearen tza t interesgarriagoa izango da ere», adierazi du.

Eta ez lioke uko egingo bere obra atzerrira eramateari. «Gustatuko litzaidake, eta ezagutzen ditudan artistak beren kabuz joan dira egiten diren azoketara. Niri galeria baten eskutik

joatea gustatuko litzaidake, horrek interes bat dagoela agerian uzten duelako»; hori esan eta beste margolari batzuekin Txinara joateko aukera bat baiduela iragarri du. Hala ere, nahiago du horri buruz asko ez hitz egin, oraindik ere zehaztu ez den proiektu bat delako. Bitartean berak lanean jarraituko du, argazkien pareko bereizmena duten margolanak egiten, Judimendin duen tailerrean; arte errealista aldarrikatzen eta goraipatzen, museotan ikusi ahal diren beste estilo batzuen aurrean. Izan ere, errealismoa bigarren plano batean geratu dela-eta kritikiko ageri da Alsasua. «Margolanei transmititzeko indarra kendu zaiela dirudi»; horra bere artistaren kritika. •

Ion Salgado



Ana Elosgi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Barruko korapiloak



Gure jendartean oraindik ez dago ondo ikusia psikologia: beldurra ematen digu. GAUR8

Zer harreman ote dauka zure lanbideak zaren horrekin, batik bat arlo sozialean? Ez baita gauza bera erizaina izatea edo suhiltzailea, makina erremintako tailerrean lan egitea edo kazetaria izatea... Nire kasuan, nire lanbideak nire bizitzan duen eraginaz gero eta gehiago ohartzen naiz. Psikologoa izanik, batzuetan kasu zail batzuk etxera eta lotara eramaten dituzu. Loa hartu ezinik egoten zara, bueltaka eta bueltaka, pazientearen osasuna bermatzeko pieza klabea zein izango den asmatu ezinik: elikadura ote, amarekiko distantzia, psikiatria, kirola, lagun bat edo bestea...

Batzuetan gure inguru hurbilak ez du nahi izaten inguruan psikologo bat egoterik; nolabait, beraien harremanak, beraien psikea etengabe epaituta sentitzen dituzte. Izan ere, askotan sumatu dut pertsona batzuen urruntzea, hainbestearaino non behin batek bazkari batean honakoa esan zidan: «Barkatuko didazu, benetan, baina ni urduri jartzen naiz zure presentzian, une oro nire psikea irakurtzen ari bazina bezala sentitzen naiz». Erantzun nion kontsultako atea itxi eta saiatzzen nintzela deskonektatzen, eta, lasai egoteko, nik ez nekiela horrelakorik egiten. Beste batzuetan, lagunartean seme-alaben kezak ateratzean,

«neska, baino zu psikologoa zara eta hainbeste badakizu» edo «psikologoa izanda hori ez lantzea ere!» bezalakoak entzuten ditugu. Azkenengo pintxo potean, honakoa esan nion bati: «Ni Ana Elosgi naiz, eta, zuk bezala, nik ere kezak eta egonezinak ditut».

Gure jendartean ez dago oraindik psikologoa ondo ikusia, beldurra diogu, kezka sortzen digu, ez da eroso. Hobe da suhiltzailea, kazetaria, mekanikoa edo enpresaria izatea psikologoa baino. Teknologia berriek ere ez digute asko laguntzen gure osasunean eta patxadan, izan larunbat edo igande, bezeroek etengabe idazten digute eta laguntza eske. Eta horrela ezin deskonektatu ibiltzen gara, kasu batzuei une zehatz batzuetan egin beharreko jarraipena ezinbestekoa delako; azkeneko, Whatsappen erabilera zoratuak 24 orduko lanaldi amaigabeetara garamatza.

Baina denak ez dira kexak, biziki maite dut nire lanbidea, nire lanbidetik eginiko harremanak ederrak dira, baita haur eta gazteen irribarrea eta kalean ikusitakoan dugun konplizitatea ere. Alta emandako bezeroen noizbehinkako mezuak, beraien bizitzaz hitz eginez, beraien aurrerapauso txikiez eta handiez... •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



BILBOKO UDAL ARTXIBOA. BILBOKO UDALA FUNTSA

BILBOKO GARBITEGI BATEAN, DUELA MENDEBETETSU

Bilboko lehen garbitegi publikoa 1868an eraiki zuten, urte gutxi iraun zituen arren. Izan ere, San Anton zubiaren ondoan zegoenez, zubi berria eraikitzeko eraitsi egin behar izan zuten. Ondoren Atxurikoa egin zuten, baita urte gutxiren buruan eraitsi ere, geltokia eraikitzeko. Ordutik aurrera, Larraskitun, Ubide pasealekuan, Zorrotzan, Solokoetxen, Basurtun... eraiki zituzten garbitegiak. Egun osoan zabalik egoten ziren eta gizonak sarrera debekatuta zuten. Umeak eraikinean bertan zeuden geletan geratzen ziren. XX. mendearen lehenengo hamarkadan, Bilbon, Ricardo Bastida udal arkitektoaren eskutik, beste bi udal garbitegi egin zituzten, San Mameskoa eta Castañoskoa. Garbitegiok berritzaileak izan ziren garairako, makineria zeukaten eta. Artikulu hau ilustratzen duen argazkia Castañosko garbitegian egina da XX. mendearen lehen herenean, eta haren egilea ezezaguna da.

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*



GAUR8 Larunbatero **GARA**rekin

